

# EUSKERAZAINTZA

## EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

VI Zenbakia.

1989  
Urtarrilla-Epailla

### AURKIBIDEA

	Orr.
Argiaren Egutegia. (Barruko azalean). Tene.	
Abostegia ta euskalkiak. Olazar.	1
Goi-Yakintzaruntz. A. Urrestarazu. ....	3
Arantzazu ta Bergara'ko batzarren ondoren. M. Oñatibia. ....	8
Euskerazko izenak... Bixente Latiegi.	11
Kezka eta amets. Jakakortaxarena tar Txomin. ....	17
Euskalerriko merkataritza. Arrinda A. eta D.	21
Euskera lantzen. A. Zatarain. ....	28
Utsak, akatsak, okerrak. Taldean.	30
"Orixe" omendua. S. Onaindia. ....	32
Azpeitia tar Julene. Muniategi tar Sabin.	35
Tene Muxika omendua. A. Arrinda. ....	40
"Kresala"ren... J. Gorostiaga. ....	44
Txomin Agirre ta bertsolariak. ....	48
Izadi'ko pitxiak. I. Zubiri.	51
Itxak. P. Etxebarria S. J. ....	54
Erdera bastertua. Manu. (Atxeko azalaren barruan)	
Omenaldiak. (Atzeko azalean)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA  
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

# ARGIAREN EGUTEGIA

## 1936 - 2036

Tene'k

Eun urte...

Nere bizitzaldi onentzat, ezin bat aña.

Egutegi onen irautearentzat, egun bat beste.

Nork esan dit, Egutegi onen iyeki bat edo bestek, edo... askok idaztitegiren bateko apalan edo ganbara kutxetan egun bat bestean, eunki oso bateko loa egingo ez dutenik?

Iñork ez.

Gutziz errex gerta litekena; ziur-ziur gertatuko dana.

Orra ba zerk 1936'ko idazle au, 2036'ko irakurlearen begietan jartzen naberen. Onek eta euzkerak sendo irauongo duan itxaropenak.

\*\*\*

Zuretzat ba 2036'ko irakurle orrentzat nere au.

Norbait izandakoa naiz zuretzat; norbait izango zerana zera neretzat.

Gerora etorriko dan aldikoa zu neretzat: aspaldi igaro zan aldikoa ni zuretzat.

Ala ere Egutegi oni eskerrak, aldi bateko edozein idazle-irakurle bestean gera zu ta ni gogoaz aurrez-aurre elkar mintzatzen eta aituko gera.

Ez da ba esango dizudan au, ez "lenagoko" ez "oraingo"; ez nere "uste" ez bes-teren. Jaungoikoa ta Aberria esateko ditudanak, Jaungoikoa betiko da. Aberria ludian dan arteko. Biak zuretzat eta neretzat berdin "lengo" ta "oraingo".

\*\*\*

Jaungoiko ta Aberri'tzaz oldozten, ames dagit... 2036'ko zure Euzkadi'z ames ere.

On, eder, azke iduri det. Jaungoiko zale ta euzkeldun. Au gabe bestea ezin ba.

Jaungoiko gabe ezin errien zorionik; ontasun eta edertasunik. Beren zeingi gabe, ezta izaterik edo azkatasunik ere. Gurearen zeingirik bereziena euzkera; euzkera gabe Euzkadirik ez.

Baña... esan det: ames dagit 2036'ko zure Euzkadi on, eder, azke, da.

Euzkotar guziak euzkeldun, euzkotar guziak Jaungoikoaren. Goimaitasuna Euzkadin pake bide; zintzotasuna bere altxor; euzkera ezaungarri. Maitasun goikoagan, gogo ona bekoagan.

Ontasun guzi au gure aberriak beti bere izan du; izan dezan lan dagit; izango dua-la ames dagit.

Entzun 2036'ko nere irakurle orrek: ¿ames dagidana egiztu da?..r

Irakurten banazu, bai: euzkera bizi dalako da-ta. Ta euzkera bizi ba'da baita euzkotarren sinistea ere. Zure Euzkadi, on, eder, azke da...

\*\*\*

Zuretzat, 2036'ko irakurle orrentzat nere au.

Zuk nere au irakurri daizun ez da asko "Argia"ren Egutegi iyeki onen irautea. Beareko euzkerak irautea. Euzkerez, aberriak bizirik irauongo du; baita bere zinistea ere. Orrela zu ta ni elez ta gogoz aituko gera.

Au irizteko gaur lan dagit... Zuretzat idazten det...

TENE



# ABOSTEGIA TA IZKELKIAK

## GAURKO ZALETASUNA

Aspaldiko urteetan ardura aundíaz begiratzen da Izkelki-iztia edo dialektolojía. Gaurko izkuntzalariak, Albar oraintsu "Real Academiá de la Lengua"ren buru izen-datua, orretan aurrerengo dala, lan aundiak egiten dabez arlo onetan.

Euskaldunak be "Izkuntzaren Lur-Iruditegia" edo "Atlas Lingüístico" egiten diardue eta lan txalogarria da ori benetan, txalogarria baiña oso gaitxa eta ekintzaille biziak bear dauzana.

Egin dira lenago be arlo onetan lan batzuk. Pedro Irizar'ek egin dauan lana, aundia ta zabala, Pedro Puxana'k aztertu dau bere errialdea da Aramaio'ko izkerea. Azkue'k berak be egin ebazan arlo onetan lan batzuk Erronkari-inguruko euskereari buruz eta neuk be Maisu-lan Txíkia edo "tesina" Mungialde, Bermeo ta Ondarroa'ko izkeren abostegia aztertuz egín neban.

Dana dala, orain-arte egin díran lanak ezer ez díra egiteko dagoanaren parean.

## KONTUAN ARTZEKO GAUZAK

Izkuntzaren Lur-Iruditegia egiteko arlo asko artu bearko litzakez kontuan: Lenengo iztegia: arlo zabala eguneroko berbetan eta toki guztietan artzen diran izenak bear daben "non-zer" argitzeko eta gero toki-izenak, giza-izenak, abizenak, eta abar. Urrengo ítz-osotzea aztertu bearko da, eta onetan euskereak an-or-emen daukan aberastasuna íkaragarria da, baí ítzenak osotzean eta ez gítxiago aditzak osotzean. Onetan be laguntza aundia ízango da Azkue'ren morfolojía...

Baiña Iruditegi au osotzeko ez da aítzu bearko ízkuntzalariak antxiñatik eta sarritan esan dabena: Izkelki-iztiaren santutegia abostegia dala.

...

## EUSKEREAREN ABOSTEGIA

Euskerearen abostegia, beronen kondairari begira, sakon aztertu eban Mitxelena'k bere Maisu-Lanean. Gero liburu eder baten age rtu zan, erderaz, "Fonética Histórica Vasca" izenagaz. Lan diakronikoa da au eta beste ikuspegi batzutatik ain irakurgarria izan arren, Iruditegi edo ATLAS au egiteko ez ainbeste. Lagungarri ona bai, zalentza barik.

Gaurko abostegia aztertzeko, ez dago beste biderik erririk erri eta etxerik etxe joatea baiño. Eta, gaiñera, euskerearen abostegia berezia da, ez dabe balio orretarako beste izkuntza batzutatik artu geinkezan oiñarriak.

...

## ARRITUTA ETA POZIK

Maisu-lan txíkí ori egitera sartu níntzanean, lenengo ta bein arrituta geratu nintzan, arrituta aurkítu neban aberastasun aundiagaitik eta arrituta baita euskaldunen apal-

tasunagaitik. Gure euskaldunak abostegi -lege ederrak eta ziurtasun aundi bategaz beteten dabez, baiña euren ustez ori euskera txarto egitea da.

**Zenbatetan olako alkar izketak erriko euskaldun zeiakaz:**

—Guk liburuetan "txakurra" iraku rten dogu edo "ogia" eta zuk "txakurre" eta "ogije" esaten dozu. Ba-dakizu ori aldea zergaitik dan.

—Nik ez dakit jauna. Guk ez dakigu eusker az berba egiten, txarto egiten dogu, eta orregaitik izango da.

—**Baiña ez dago txarto. Guztiok egiten dozue bardin. Guztiok beteten dozuez iñongo gramatiketan ikusten ez diran lege batzuk, ziurtasunagaz, eta ori ondo berba egitea, euskerearen aberastasuna da.**

Eta etxe aretatik urten eta idaztera niñoala neure artean pentsatzen neban: Nok sartu ete dau gure euskaldunen buruetara, eurak txarto egiten dabela berba? Gramatikariak izan ete dira, euren gramatikak erritik artuak "descriptiva" izan bearrean, legeak ezartekoak "normativa" k diralako? Ala, batez be azken-aldi oneitan batu-zaleak eta ikastetxeetako irakasleak erriak erabilten ez dauan euskera-antzeko bat irakasten dabelako ete da?

Nik ez dakit nor dan errudun, baiña kalte ori egin dauanak euskerearen aurka jokatu dauala eta erria zapaldu dauala bai.

eee

#### ARAU-BETETZEA

Sarritan erri batetik bestera dagoan aldea ikusita, euskaldunak ez daukagula izkuntzaren batasunik uste izaten dogu. Eta alan da. Gizon bat, naiz andra bat, beste gizon naiz andra bategandik ezbardiña dan antzera, bere izkerea be ezbardiña da eta izan bear dau. Izkuntzak bakoitxaren no rtasuna agertzen dau. Bardín esan bear auzo naiz erri batetik bestera dagozan ezbarditasunai buruz edo Euskalkien artean dagoanari begira.

Eta ezbardiñak izatea ez da gauza txarra, ona baiño. Aberastasuna da. Gaurko munduak gizaki guztiak bardintzera joten dau, lenago be España'tarrak Ameriketako izkuntza guztiak zapututeko artu eben jokabideari jarraituz, baiña jokabide ori, ekoloji-arazoan dabillen zapuzketaren antzekoa da eta ez dago gizalege zuzenaren barruan.

Ezbarditasun txiki edo aundi orreik ez dira artu bear garrantzi bako edo kaltegarri lez, orreik aberastasuna dira, zaindu egin bear dira, aztertu egin bear dira. Orixe litzake Iruditegi edo "Atlas" orren barruan lortu bear dan elburu bat.

Or dago billatzaille, ikertzaille edo aztertzaillaren lana: Erriko bitxi eder orreik banaka aztertu eta ortik Abostegiko legeak ateratea, lege ziurrak edo arau sendoak, beste izkuntzak aztertzeko be bide izango diranak.

Gaukoz ez luzatzeko, urrengo idaz-lan baten azalduko dodaz neuk aurkitutako arauak, gure abostegia, geure aldikoa, ulertzeko bear-bearrekoak diran arauak.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

# IRAZKINTZA

## GOI-YAKINTZA'RUNTZ URBILTZEKO NAYEAN EUZKERAZ EGI NDAKO UÁATS TXIKIAK

### II ITZA

Bedega ak diran ikusitako azpegi guzti oyek, egitan, gizakiak gizonak dituen beste ainbeste, doayak, eska ak dira. Nundik ala norengandik datozkio gizakiari doai edo eska oyek? Sinistun geranontzat zalantzik ez, eta bereala erantzuteko: Yainkoa'rengandik; oso ulerkaitza baita beste edonundik izatea, eziña oso Aldakunde'aren bidetik, gayezkoa dan ezerezetik. O a of Sorkunde asmoari inda a ematen dion oarmena.

Ba-dago, oindiño, adimendunok baka ik dugun beste bedega nabarienetakoa dana: itzegiteko aalmena, alegia. Berezi-berezia dugu aalmen au, ta bere ga antzia ezin esan diteke ongi, nolakoa dan eta noraño al diteken, ain aundi ta zabala baita.

Doai ikusga i ta a iga ia, bai, itzegiteko doaya, ondo ta sakon aztertu nai-izango genukena.

Itzen bidez itzegiten dugu, itzak egiten baita mintzatzea. Itzak dagizkigu bai ta, gero, oguztatu ere; ta itzak oguztearen bidez, besteai, barneko gure oldozpenak eta oarpenak jakin-erazten dizkiegu; ofa of gizonok alka enganako yarduna zein egokiro betetzen dugun.

Txiki-txikitatik ikasten du gizonak mintzaten, bakoitzak bere gurasoen izkuntzak dituen itzen bidez, geyenetan; eta bidezkoena bezela agertzen da doai ori gizonaren baitan.

Ba-dago doai ontan zerbait ezkutuki-margoa duena. Nola eldu zayo gizonari doai ori? Eta nora?, gogoagana?, soñarengana?, biengana? Eta zertarako?, itzegiteko baka ik?, oldozteko ere?, nolabait idazteko be? Ba-dagoz azpegi batzuk ikusteko almen onen inguruan, eta berberian be begiratzeko ta aztertze.

Len egipen batzuk aipatu ditugu, batzuk gogoai dagozkionak, beste batzuk soñari, o ela ondo zeda iturik geratzeko. Baña itzaren ardiEspena bienganaño eltzen dala oartzekoa da, gogoarenganaño lenengoz, soñarenganaño gero, naiz eta bi zera oyek, geyenetan, ez oso argi ikusi. Ta ontaraño eldu ezker, bidezkoa dirudi galdera au egitea: Nola sortzen da itza gure baitan eta nola guregan?, gure baitan, gogoan noski, ta guregan, soñean eskierki; gogoan aurki lenengoz, soñarengana gero igaro al-izateko. Itza, beraz, biei dagokielarik, bien loka i edef eta berezia da ain zuzen, nunbait bizi biak bat egiten, edo alkartzen bederen, estu- estuki alkartzen.

Itza itzegitekoa da, mintzatzekoa, jakiña; baña egiz esan dezakegu itza oldoztekoa ere dala, itza oldozpen txikiena egiteko be ezinbestekoa baita; maiz esan da itzen bidez oldozten dugula ta ezin ukatu ori egia dala. Uste dezakegu oldozpen-pindaf bat nolabait geron baitan jauzi edo sortu egiten dala, itzik eratu baño lenago, baña o ela baldin bada ere, egiazko oldozpen txikiena eratzeko, itza bea -bea a zai-gula, pinda ori guztiz mengela dalarik. Eta geron baitagandik, geron gogoarengandik, gerongana, geron soñarengana igarotzeko ta bertan bizi al-izateko, itza agertzen da baitezpadako bidea bezala. Orixe da, geron ustez, gizonarengan itzaren jokoa; ta o ela gure bi biziien loka i ede ena lez agertzen da, soñarena gogoarenarekin bat egiten.

Naiz eta esandakoa, geron gardiz, o ela izan, ba-dirudi itza, bereziki, mintzatzekoa dala, ots, besteekin a emanetan ari-izateko, geron baitan sortu ta bereala geronganatzera doalako, oguzita izateko, ta oren bidez beste norbaitekin itzezin al-izateko, esan nai duguna beste oek entzun dezan. Eta oldozteko erabiltzean ere, aoko atean be jartzen bide da oguzteko xedeaz; o engatik oldoztean be entzun gabeko oguztean darabilgula esan genezake.

Ez bide dago, ez gure baitan ez eta guregan ere oren antzeko izan ditekenebeste doairik. Aundia da, noski, gure adimenaren doaya, indarduna benetan, beraren bidez gauza ta egipen eta gertapenak oro ulertzeko aña baita; baña ari-izateko, ara men agertzen zayon itza, ezinbesteko laguna bezela.

Sifiñisten dugunok ba-dakigu Yainkoa ta gizonaren artean bein-betiko alka rtasuna dagoela, ta alkartasun ori Yosukristo dala, Yosukristo Yainkoa'ren itza dalarik. Eta gizona Yainkoa'ren antzera egiña dalako, ez ote dugu ikusi bea gure itzaren yarduna Yainkoa'renaren antzekoa dala?; onek Yainkoa ta gizona alkartzen ditu, gureak gure izaera osotzen dituen bi biziak, gogoarena ta soñarena. Ortan gizona Yainkoa'ren antzera egiña dala egiztatzen edo zaigulakoan egon bea .

Alde guzietatik begiratzean nabari-nabari agertzen zaigu itzaren ga antzi aundia, ga antzi nagusiena dala esango genuke; bai, aundiena bezela ikusteko, gizonari emandako almena, bizian barna beste izakirik eztuena, ta gizona bizidunen mail goyenera jasoten duena; alakotz, almen ori gure izaerarengan dagoen aundiena bezela begiratu bea dugu, ta ofela gizonaren goitasun eta duintasuna agiri-agirian dagoz.

Asi gaitezen orain gure izaera edo bizi osoaren beste azpegi bat, beste azpegi berezi bat begiratzen eta aztertzen; nolabait itzarenak darabifen aurkako bidean barna doakiguna; noski onek barnetik lekorera, geron baitan asi ondoren gerongana doalarik; besteak, aitzitik, lekoretik barnera, gerongandik geron baitaruntz dagi bere bidea. Ikus dezagun nola:

Guziok ongi dakigunez bost zentzu bereziak ditu gizonak berarengan: ikusmena, entzumena, usaimena, txastamena ta ikumena, bostok beren jokera alka enaren antzekoa dutelarik. Aipa dezagun, ereduz, lenengoa, ta begira dezagun nola jokatzen duen: Begien bidez artzen ditu zentzu onek guregandik an dagozen beste iza izate edo egipenen eraso ta azalpenak; oyetako edozein artu ta berealaxe, ikus

bidez, jasotakoa burumuñera doa, bertan ikusmenaren egipena buruturik geratzeko; burumuñak bi zati berezi auek dituela: goiko ta au eko garuna, ta beko ta antzekoa; burumuña kirio-bilgo nagusia izanik.

Ikusmenaren jokera ori gizonarengan bezela abere guziengan ere geriatzen da, ta soñari dagokio bakafik guregan buruturik izateko. Baña beste zerbait geratzen da gizonaren izaeran, abereenean jazoten ezdana; gizonarengan gertatutakoa, nolabait, gizonaren baitanera igaroten dala esan dezakegu, burumuñean burututakoa adimeneraño ere eltzen da, ikusmenak jasotako irudiari eske , adimenak bereala ikusitakoaren ondorioak ateratzen ditu, amaika izan ditezken ondorioak, bai ta ondorio oyei buruz oldozketak egiten. O ela soñaren biziak gogoarenera zentzuak jazotakoa, nolabait, eltzen dala esan genezake; egitan ba-dakigu o elaxe gertatzen ezala, baña bai gogoan bere ondorioak berealaxe so erazten dituela. Nola burutzen da

joko ori?; lenago esan dugunez ea orok ongi dakigularik, gure nortasunean gogoak eta soñak bat egiten dute alkartasun egokienean; eta zentzuek lekoretik artzen dutena burumuñeraño baka ik eltzen dalako, ez al dezakegu uste alkartasun ori, ain zuzen, soñaren aldetik ortxe, burumuñean bertan, egiten dala? Onela dirudi ta o engatik egitzat edo a dezakegu gure soñaren zati bereziena, berebizikoena, buruko burumuña dala. Apika gure gogoa gure soin osoaren batua edatua da ta o ela gure bi bizen alkartasuna burutzen ere; alabaña soñaren aldetik, egiz, alkartasun ori burumuñean egiten bada, uste genezake gogoaren aldetik be ba edo dagoela oían antzekoa izan diteken beste bere zati berezia alkartasuna burutzeko. Jakiña, gure gogoa gure nortasunean zeda iturik dago, baña eztakigu egiazki bere era nolakoa dan, ez eta, soñaren antzera, atalduna ote dan; bere ondorioetatik lortzen dugu baka ik gogoaren izaera ba-dagoela jakitea, ta, geyagorik gabe, o ezaz zuzen ezin ezer jakin eta izaera ori guretzat ezkutuki bat bezela begiratu bea dugu. Zalantzik ez, eiki, gure gogoa guregan bizi dala gogo-bizia burutzen, baña egiazko bere era berezia nolakoa dan eziña da guretzat ezagutzea.

Edozein eraz guregan gure bost zentzuek burutzen duten lana oarga ia da ta ikusga ia ta a iga ia ere, zentzundunak diran beste izakiengan ere berdin jokutzen dalarik; ortan zentzundunen bizia bera, ororengan gertatzen da era berean eta bizi ofen ondorioetan baka ik agertzen da gizonagan soilki dagoen berezitasuna, ondorio oyek gogo-bizian barna gertatzen diralarik, gogo ta soñak duten beren alkartasunaren eske eta bidez.

O ela agertzen dira, ongienik, zentzundunen biziak egokiro zeda iturik, gizonarena beti ta argi goi-goyenetakoa bezela nabaritzen, beste guzien gain eta beste guztiak baño galga jasoenean ari-izateko. Argi ta garbi oa dezakegu, alakotz, gizona Yainkoa'ren ekintza ede eta berebizikoa dala, Ludi'an barna eiki ekintza ga antzidunena ta onarga iena ere.

### III - ADIMENA

Gizonaren bi bizi-motak, gogoarena ta soñarena, bere nortasuna betetzen dutenak, guztiz alkarturik agertzen zaizkigu, ain zuzen nortasun ori eratzeko ta osotzeko. O engatik bien arteko alkartasuna, ertsi-ertsia dana, bide askoren bitartez burutzen da egokienik, bakoitzarengandik bestearengana jokatzean, ots, alka engandik eta alka engana, berebaitarengana. Eta jokera ortan, batzuetan zuzen eta besteetan zea ez gertatzen da; e.b., ikusi dugunez, itzaren bidea zuzen ari da ta zentzunen bidea zea ez; baña biak, alka en layan, gizonaren izaera burutzen eta zabaltzen.

Ba-dira beste bideak, beste egipen eta eragipenak, geyago ala gutxiago, aipatzen dugun elkartasunean yarduten dutenak. Ikus ditzagun zeintzuk diran eta nola jokatzen duten.

Sena dugu berezietako bat, zentzundun guztiengan eta bakoitzean beren gisaz agertzen dala. Zer ote da sena? Ez da, noski, adimena, baña nolabait bere antzekoa bezela begira dezakegu.

Ba-dago sena, bai, gizonarengan, baña onek, adimenduna dalako, adimenaren bidez yarduten du geyenatan eta bereziki, ta o engatik ere senaz gutxienetan eskierki. Abereengan, ostera, adimenik ez dutelako, senaz ari dira beti, ta o ela berengan oartzen da sen ori, beti ta bakoitzarengan era berean jokatzean; eta o engatik be gizona ez dan bizidunagan sen oek zeda itua bezela jokatzean du, o ela bearturik. Of dugu, gañera, gizona ta beste zentzundunen artean ikustekoa dan ezberdintasuna. Senez ari diranak azkatasunik ez, gaur gauza bat eta biar beste bat egiteko; oyek beti senak ematen dien bidean barna ibili beaf dute, egunero gauza berak eta berdiñak burutzen; of ditugu erleak eta txindufiak gauza bera beti egiten, ezin beste

jokera erabil, ta a ela almenik ez oyengan azke jokatzeko, nai ta nayeakoa da beren yarduna, ta yardun oren pean bizi dira beren bizi guzian eta beren ibiltze guztietan.

Gizonak, aitzitik, adimenaz jokatzeko geyenetan eta iñoiz senaz ere ari bada, beste zentzundunak bezela diardu adimenik izango ezpalu bezela. Gertatzen zayo, bai, gizonari o elaxe yarduteko, baña orduan oldozmenik gabe ari da, bere baitan ezer oartu gabe ta berarengan baka ik gertatzen danez. Argi dago, beraz, adimena bere gogo-biziana dala, bere baitan gertatzen dala; ta sena bere soñean, berarengan baka ik. Soñean, berarengan, izaki zentzundun guziak bezela; gogoan, befiz, bere baitan, gizona dan izaki adimenduna bezela. Ezberdintasun aundia, berezi, aipagafiena, gizona ta beste zentzundunen artean dagoena; oña i ede a ori, noski, gizonaren nortasuna ta duintasuna agertzeko, oartzeko ta goraiatzeko.

Ba-dirudi, batzuetan, sena adimenaren ordekoaren antzekoa dala, nolabait bere osotasunera eltzen ez dan adimenaren asiera bezela ikus ditekera; baña egitan, berdin ez diran bi geyapen ditugu zera ortan: bata adimena ta bestea sena; adimena gizonaren baitan dago ta sena zentzundun guztiengan; ta biak erkatu gabe begiratu ta aztertu bea ditugu, bakoitzari bere izaera berezian dagokiona aztertzean.

Ba-da a iga ia adimena, ba-da a iga ia ere sena, neu i askoz aundiagoan lenen-goa, noski; baña bere galgan oso a iga ia be biga ena.

Naimenik gabe jokatzeko dute gizona ez diran zentzundunak, eta beren jokaeraetan beti berdin agertzen diralarik; jokatzeko ortan itsu-itsu bezela jarduten dute beti; ezin jokatzeko ortatik atera, ezin oyentzat beste jokabiderik ikusi, ta ortan dago oyengan oartzekoa dan a itasuna, aztaka-aztaka ari ta beti berdin ari, batzuetan, erleengan bezela, gauza guztiz gelga ia egiten eta burutzen. Alaz ere, tokitan geratzen da ori gizon adimendunaren jokararen aldean; eta auxe da, benetan, gizonaren nortasun berezia ederkienik oa erazten duena, bide egoki ta ede a orixe nabaritzeko. Guzti o ezaz gero ta geyago oldozten badugu, gero ta obeto, argiago ere ikusten dugu izadian gizona dagoen galga goituena dala, izadi guziko izaki bereziana dala ta guztiz goraiatzeko dugula.

Sena dala-ta, ortik zentzundunengan ezaguerarik sortzen ote da? Ustekoa izango litzake nolabait asieran, sena ta ezagueraren asmoak alkaturik bezela ikustea, biak alka enganako aín urbil dagozalarik; baña arazo au iraitzean baka ik begiraturik, argi ta berealaxe oa dezakegu o elakorik ez dala, ta sena zentzundun guztiengan egona en, ezaguerara garbi agertzen da adimenaren jokaera bat baka ik dala; beraz, ezaguerara adimenduna dan gizonarengan (bere baitan) bai, beste zentzundunengan ez; ezin sena ta ezagueran alkartasunik ikusi.

O elaxe, geron ustez, zeda iturik geratzen da oso, adimendunak ez diran izakien izaera, zeda i estu-estuetan edatua baka ik dagoela. O engatik oyeke nolabait gure gogoetatik at utzi ditzakegu, adimenduna dan gizonak burutzen dituen egipenetan barna ari-izateko. Goazen, alakotz, oyei buruzko azterketan yardutera.

Adimena. Bearbada gizonak duen men (almen) aundiena, adiña izatekoa dana. Ta zer ote da adiña? Gauzak eta egipenak eta gogayak eta oldozmenak zeintzuk diran, nolakoak diran ule -antzea.

Adimena = Adin izateko almena (mena).

Adimena = Gizonak duen men aundiena, ots, adiñaena.

Aztertu dezagun "adimen" itza. Beste bi itzen bidez eratua dala ikusten dugu: "adi" ta "men"; "adi", noski, gure baitan izan ditekera guztia ulertzeko da; ta "men", al-izatea, gaitasun edo bidea. Beraz, "adimena" dan-dana ulertzeko almena, gai edo bidea da, ala asmo guzti oyeke bat eginda osotua dana; baña batik bat ulertzeko almena.

Eta almen a en eske , geron baitan, oldozkun, asmo, gogai, zentzun, gogaketak, erkatzea... ateman eta erabil ditzakegu...; ta orlan ikusi bea gure barneko bizia, gure gogo-bizia... geron baitan dagoena.

"Adi", "adimen" eta "adin" itzek ba-dute alkafen antza, naiz beren egituran naiz



beren esan-nayean; izan ere ba edo dira gogai baten litsak; eta lits oyek onela edo ikusteko:

"Adi", noski, gogayaren asiera bezela ikusteko; "adimen" "adi" ortan dagoen almen jatof eta aundia; "adin", lenengo "adi", "adimen"-aren ondorio lez, gogo-egi-mena bihurturik. Orixe bide da geron baitan gertatzen dan gure gogoaren jokoa, gure barnean, gure baitan, eten gabeko ekitean ari zaiguna.


Eta joko oren eske eta joko oren bitartez, ezagumen, gogamen, oldozmen, ulermen, oroimen, naimen, zentzumen, ..., ots, gere gogoan, gure baitan, gure barneko bizian izan ditezken gogo-jokera guztiak.

Ikus ditekenez, argi agertzen da gure baitan, gure gogoan dagoen bizia nolako zabala dugun eta oso u utira be, eldu ditekela, ba-dirudi ia mugarik ez dagoeneraño. Eta o ela izanik oso almen aundikoa bezela begiratu bea dugu ortaraño eltzekeo dugun gogo-bidea, ots, "adi" ta "adimena"; a iga ia benetan. Bai ta ortan ere auxe ikusteko: Giza-gogoa nolako aunditasunean begiratu beaf dugun; o ela be gizonaren gogo-bizia goi-goyenekoa dala, argi ta garbi, nola agertzen zaigun.

Ofen aldean Ludi'ko beste gauza guztiak, ben-benetan, oso txikiak agertu bea , naiz eta yakintzan bertan aundi ta a iga iak izan. O a of gizonaren gogo-bizia gorenetakoa dala edo, obeto, gorena, egitan, Lu 'ean irasita dagozen izaki guztiak onelaxe ikusi bea ditugula: Alde batean, goi-goyean, gizona; ta bestean beste izaki guztiak, beeragoan.

Ba ote da, arean, jakinga i ta azterga ia gizonaren gogo-bizia nolakoa dan eta nola yardun dezaken begiratzea? Bai, enurarik gabe, ta ain zuzen lan ori egiteko Goi-yakintza dugu, yakintzaen yakintza dana. Goazen, bada, ikasgai oyetan barna ta gure adimenaren bidez, gure u ats berezienak egiten, naiz eta ortarako gure almena txikia izan; alan eta guzti ekin dezagun al-izango duguneraño eltzekeo xedeaz; eztugu uste gutiz alpe ik izango dana.

**U estarazu'ta Andoni**





# ARANTZAZU TA BERGARA'KO BATZARREN ONDOREN

Gaurko euskera batuaren aldeko lenengo billerak, Bayona'n eta Ermu'n egin ziran. Ondoren, Arantzazu'n eta andik amar urtera Bergara'n.

Bayona ta Ermu'ko billeretan, eratzailleen asmoak eta elburuak argi ta garbi ikusi ziran eta Franco ttiki biurtuz, beren iritziak aurrera eramateko, zapaldu bear zana batere kupirik gabe zapalduz, bide guztiak erabilliko zituzten, erriaren gogo ta jokoera batere kontutan artu gabe ta berari ezer galdetu gabe. Beren "arrazoi" bakarra gaztediaren indarra zan eta Mitxelena'k ontzat eman zuanez, naikoa izan zan. Arantzazu'n artutako erabakia, aurrez azterketa sakonik egin gabe artua izan zan.

Zorionez, Arantzazu'n adimen argikoak ere ba-zeuden eta egin nai zan aldaketa-  
ren arrixkuak eta bearrik-eza ederki asko azaldu ere bai; adibidez, Aita Justo Moko-  
roa, Lafitte, Mujika eta Lojendio'k, baiña dana alperrik izan zan; Bayona ta Ermu'ko  
izketaldiak beren emaitza izan zuten.

Erabakitakoa aurrera eramateko On Manuel Lekuona oztopo edo eragozpen izan zitekeala ta egin ditekenez billaukeri ta azpikeririk lotsagarriena egiñaz, Euskaltzain-  
buru izatetik kendu arteraiñoko oñik ez zuten izan. Izenperik gabe eskutitz batean  
bere aurka bekaizkeriz betetako iritziak jarri ta euskaltzain guztiei banatu ondoren,  
Euskaltzaindian zuzendaria aldatu egin zuten.

Arantzazu'ko billera izan zanetik amar urte igaro zirala eta, orduan artutako eraba-  
kiak "aztertzeko" edo, Bergara'ko Batzarra eratu zuten. Batzar ontarako zabaldu  
zituzten txostenak ikustea naikoa, beretan ezer "aztertuko" ez zala jakiteko. Ori ikusi-  
rik, Euskaltzaindiak zeraman jokoarekin baten geundela ta zer bide artu erabakitze-  
ko, talde bat Donostia'n bildu giñan, —aien artean On Manuel Lekuona—, eta asiera  
batean, Bergara'ko Batzar ontara ez joatea erabaki zan eta baita izparringietarako  
jokaera onen zergatia adieraziz, adierazpen bat idatzi ere, baiña arian-arian, ez joa-  
tea beldurti jokatzea zala eta azkenean, batzuk baik ere beretan agertu ta gure iritziak  
agertzea obe zala ta an azaldu giñan.

Bergara'ko Batzarrean guztira berreunen bat lagun bildu giñan eta gure aldetik  
talde ttiki bat. Gogoan ditudanak auek: Zatarain'dar Anbrusi, Olazar'tar Mariin, Lati-  
gi'tar Bixente, Azurza'tar Jose Joakin, Yon nere anaia ta ni. Beste batek edo bik ere,  
gure iritzi berdiñak jaulki zituzten, baiña zeintzuk ziran ez dakit. Zo rtzi lagunek  
berreunen ondoan ezer askorik egin ezin, baiña gure iritziak agertzeko egokiera  
izan gendun.

Batzarraren asieran Mitxelena'k ala esan zuan: "Pelota-jokaldi batean, gorrien  
edo urdiñen alde iritzi batera jokatu oi dan bezela, guk ere bide bat aukeratu bear eta  
gaztediaren indarra atzetik zetorrela ta h'aren bidea artu gendun.

Ondoren, Haristchelar'ek, 200 itzetan h'a jartzea erabaki zutela ta nun jarri erriak  
bereala ikasiko zuala ta ez zegola batere eragozpenik esan zuan.

Urrengo egunean, nik itza eskatu ta ala esan nuan: "Mitxelena'k atzo esan zuanez, Euskaltzaindiak euskera batu onen bidea, pelota-jokaldi batean gorrien edo urdiñen alde, iritzi batera artzen dan bezela artu du. Jakin euskera batzearen alor ontan izandako ixkanbillak zenbateraiñoakoak izan ziran eta azterketa sakon bat egin bearrean ala jokatzea, erakunde ospetsu baten jokaera al da? Ez al zan askoz obe izango, erriz-erri azterketa on bat egin eta danon iritziak jaso ondoren erabakia artzea? Amar urte auetan ez dezute orrelakorik egin, baiña iñoiz egingo da ta zuen erabakiaren arintasuna ta bururik eza ikusiko da. Bestalde, Haristchelar'ek, Euskaltzaindiak artu duan bide ortan 200 itzetan h'a sartzea erabaki dezutela esan zuan atzo. Euskaldunok setatsuak gera ta indarrean bestek ezarri nai duan bidetik eramaten oso zailak. Zuek erabilli 200 edo itz geiagotan zuen h ori; guk ez degu erabilliko; bai zuek eta bai gu, danok euskeraren alde lanean gabiltza; euskera ilzorian dago ta iraungo ba'du, danon bearra du, zuen eta gure bearra. Zergatik ez ditugu bi bideak ontzat ematen eta danok Euskaltzaindiaren babesean euskera aurrera ateratzen alegindu ez?

Nere jardunak ez zuan erantzunik jaso; ez zuten aintzakotzat artu ta bereala Patxi Altuna'k neri begira gogor ekin zion: "Nolatan utzi diteke itz egiten, Batzar onen asmoen aurka dagon bati?"

Olazar'tar Martin'ek, Euskaltzaindiak zeraman bidea indarkerizkoa zala ta diktadura zakarrela esan ondoren, otso amorratu baten gisan Txillardegi jeiki ta len ere diktadurapean naiko ezbear jasandakoa zala ta orrela itz egiten zuana aretotik kanpora bidaltzea eskatu zuan.

Ango giroaren berri naiko argi gelditu dala derizkiot.

Iru egun luzetan naiko naigabe igaro ondoren, plaza-gizon baten patxadarekin, Latiegi'tar Bixente jeiki, areto aurrera joan eta danei begira ala ekin zion: "Argi ikusi degu, Euskaltzaindia ez dala euskeraren zaindaria, orain sortu nai dan euskera batuaren zaindaria baizik eta ori ala izanik, laister beste akademi bat, erri-euskeraren zaindari izango dan erakunde bat sortuko dala adierazten dizuet".

Atxaga bere exerlekutik jeiki eta, "Ori txantaje bat da" orru egin zuan eta Latiegi'k berriz ere batere malmetitua gabe, "Ori, laister ikusiko dezute".

Nik oraínsu idatzitako guztia, Euskaltzaindiak Bergara'ko Batzarreko izketa guztiaz magnetofoi bidez jaso ta itzez-itz argitaratu zuan Euskera aidizkaritik artzea zan onena, baiña gure taldekoek esandako iya guztia, magnetofioean garbi entzuten ez zalakoaren aitzakiarekin, moztu ta itxuragabetuta agertu zuten. Argatik idatzi det egin dedan bezela.

.....

Latiegi'k agindutakoa egi biurtuz, Euskerazaintza sortu zan eta alegin guztian or gabiltza erri-euskeraren alde jo ta ke. Egia esan, ez degu bear genduken laguntzarik aurkitzen. Erri-euskeran egiten ditugun liburuentzat diru-laguntza apurrak jasotzen ditugu, baiña bai Jaurlaritzta ta bai alderdi politikoko guztiak euskera batura lotuta ikusten ditugu.

Baiña ikus dezagun, Arantzazu'ko Batzarrean artu zan erabakiaren ogeigarren urte-muga igaro berria dala eta, Argia asterokoak "88 euskal kulturaren urtekaria" izenarekin argitara eman duan aldiz karian, dossier eran, erabaki ta batzar ura ta ondorenak aztertuz diona. Asierako izenburua au da: "Euskara batuak 20 urte bete ditu, baiña ... batua batu ote?"

Dossier ortan euskeraren egoeraren berri lagun askok ematen dute ta zenbaitzuetatik izenburu bat eta besteengandik lerrotxo batzuk jarriz, ea bere mamia adierazten dizueten.

Irratiak orrela daude: Zuberora'n, "Zuberoko botza" izeneko irratia, zubereraz aritzen da. Be-Naparroa'n: "irulegi irratian", baxenaparrera baliatzen dute. Lapurdi'n: "Gure irratian", Iparraldeko euskera hiritiarra egiten dute. Gipuzkoa'n: "Loyola erri irratia" gipuzkera kulto edo batuz aritzen da. Segura irratia gipuzkeraz. Arrate irratia

gipuzkeraz eta bizkaieraz. Euzkadi irratia, batuan baiña arau guztiak bete gabe. Bizkaia'n: Bilbao'ko erri irratia, bizkaieraz. Napparoa'n: euskerazko irratiak eragin ttikia dute. "ETB, den mendreneko hizkuntz plangintza gabeko kabia" dio. "Ahozko komunikabideak eredu gabe". "Batasuna ez da oraino mamitu".

Izparringiak: Eguna ta Hemen euskera batuan (asterokoak). Argia asterokoa, batuan. Zer illerokoa bizkaieraz. Jakin aldizkaria batuan. Saski-naski iru illabeterokoa, erri-euskeran. Herria asterokoa, be-naparrera ta lapu rteraz. Egin eta Deia egunerokoetan euskerazko lanak batuan, Deia'n noizin beinka Zubikarai'k idazten dituanak ezik.

Zati berezietan, iritzi auek age rzen dira: Iñaki Gaminde'k, "Batua bai, bizkaiera ere bai".

Jose Angel Irigarai'k: "Euskalkiak ala batua sasi auziaren orde, euskalkiak eta batua joera aldarrikatu nahi izan dut beti".

Josetxo Lizartza, A3 buruak: "ETBn euskalkiek lekua eduki dezateke". "Nik uste, aurrera jo behar dala eta nahiz eta batuaren formak jarraitu, noizean bein ere bizkaieraren formak erabiltzea, hangoak marjinaturik senti ez daitezen".

Xipri Arbelabide'k: "Eskatzen duguna, Euskal Telebistan egun oroz 5 minuta edo 10 izatea Iparraldean Iparraldeko norbaitek eginik".

Ikastolak: Euskal-erri osoan geienek batuan diardue.

Erriak erabat lurraldeko izkera darabilki. Euskera batua iya iño rtxok ere ez. Euskaldun berriek eta ikastoletatik datozen aurrek euskeraz itz egiten dutenean (geinetan erderaz mintzatzen bait dira) batuan egiten dute, baiña etxeokokin ere euskeraz mintzatzen ez diranek, gaizki jositako euskera lotsagarri bat darabilkite geienak.

Ogei urieren buruan eta ainbeste milla milloi pezta kastatu ondoren, euskera batuari zegokion aurrerakadarik egin ote da gero? Ni ezetzean nago. Nik Bergara'ko Batzarrean eskatu nuan bezela, bi bideak, euskera batua ta erri-euskerarenak ontzat eman eta Euskaltzaindiaren itzalean jokatzea erabaki izan ba'litz, euskera gaur ez dagon bezala, askoz obeto egongo zan.

#### Oñatibia'tar Manu'k





# EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN BEDERARIGANEN MENDEKO LAULA UKI

863'koa zan azkena aztertutako larrukia. Urrengo urtekoa, 864'ekoa, da berriz orain aztertuko duguna, eta emen ere beste artako Didako Kontea dakusgu, Oka'ko Donefelis'en lekaidetxeari eskeintza berriak egiten.

Toki-izen aukerak aipatzen dizkigu:

AUKENSIS	ANGULO	BARCENA	EZQUTI
FLABIONE	ROCAS	ALZAPARAPOZ	LONGAS
PENNA	MANATA	SALVATA	PONNATA
SALVATON	FARO	CORONELLAS	ANDALUZ
RESSA	GAUZELLA	HUZIRZA	UZUZA
URZANNICO	UGGATATZ	BILBERTES	ANNIS
PONTE ZERZI	EVERSA	LIXARZO	PANDO
FLUISO	ERVICO	DESOLIO	DOBALTIA

Erri ta toki aukerak danak, Autrigoni'n zeuden, gaur-egun Araba'ko Araia eta Burgos'ko Mena eta Billarkaio diran lurraldeetan. Orregaitik, izen oiek danak, euskaldunak ditugu, naiz batzuk itxuraz zearo aldaturik egon, euskalerrri bait ziran IX mendearen erdian lurralde aiek.

Euskal-itxura galdurik agartzen zaizkigun izen oiek..., ¿gaizki idatzi ote zituan Didako Kontearen lumalariak? Geroagoko bir-idazketetan ¿lumalari erdaldunek ondatu ote zieten beren euskal itxura jatorra? Esan-nai argiko izenak ¿laterera itzuli ote zituzten? Adibidez, ¿Aitz, zentzu errezeke izena, PENNA, gazteleraz PEÑA—, biurtu ote zuten?

\*\*\*

AUKENSIS.— Itz-laguntzaillea dugu, adjetibua. "Okatarra", esan nai du. Bi aldiz agertzen da izen au eta beti "AU"z idatzia. Badakigu "AU" ori "O" dala, eta geien-geienetan orrela agertzen zutela gure "O" izkia: "AU".

Asturietakoa Errege bisigoten Uri Nagusia bera, OVETO, gaurko Oviedo, 864'ko larruki ontan "O"z agertzen zaigu idatzia: OVETO. Baiña urie bat leenago, 863'ko beste larruki artan, "AU"z agertu zitzaigun: OVETAU, naiz bi larrukietan bat bera izan idaztea agintzen zuan kontea, Didako, eta aren esanera idatzi zituan lumalaria: Tamaro. "Tamarum presbiter scripsit".

Orra or, erdiaroko ortografiaren axolagabekiriaren adigarri, itz bera, orduan ondo-txo ezaguna zan izena gaiñera, batean "O"z eta bestean "AU"z idatzia: OVETO, OVETAU.

HUZIRZA.— "H"z idatzirik dokumentu zar auetan aurkitzen dugun lenego izena! Zerbait esan nai ote digu "H" orrek? Ezer ez! Serrano'k izen ori bera HUZUZA, irakurtzen bait digu, H'z, naiz gero izen ori bera, bi aldiz, H'rik gabe agertu: UZUZA de Sursum (Goikoa), UZUZA Deorsum (Beekoa) (1)

HUZIRZA, Ubieto'k irakurtzen du. Eta naiz erdiaroko idaztien irakurketan Ubieto konfiantza geiagokoa izan, arazo ontan badirudi Serrano'k duala arrazoi, larruki ontan bertan UZUZA geiagotan ere agertzen bait zaigu, eta biak irakurtzen bait dute berdin, oraingo aldi auetan, itz ori: UZUZA: "H"rik gabe.

Orrela, "H" a euskeraren idazkeran sariu zan aurren-aurreneko uneetatik asita, txatxukeri bat besterik ez dugu izan izki orren erabilketa. Tamarum "scriptor et testis" `Tamaro idazle eta lekuko" aren txolinkeri utsa, izan zan orduan; Antziñako Tamaro ura baiño okerragoak diran batzuen erokeria dugu gaurko egun autan..

UZUZA.— Bi erri, izen onekin: "Uzuza de sursum et Uzuza de orsum": Uzuza Goikoa eta Uzuza Beekoa. Biak "H"rik gabe, bai Serrano'ren bai Obieto'ren agerpenetan, naiz esan-berri dugun bezala, Obieto'renean, bi Uzuza auen aurretik larrukian agertzen zaigun Uzirza "H" idatzirik egon: "HUZIRZA".

URZANICO, eta URZANNICO. Erri beraren izenak; baiñan batean "N" soilla eta bestean "NN" daramazkialako, ez dakigu URTZANIKO ala URTZANIÑO agoskatzen zuten. Erdiaroko ortografia!

Izen au eta baita len aipatutakoak ere, Uzirtza eta Uzutza, euskaldunak diranik ezin daiteke zalantzan ipiñi.

Uzirtza, Uzurtza ba'zan, larrukian bere atzetik datozen bi Uzutza aien bilduma dala esan genezake noski: Gipuzkoa'ko bi ALTZO'ak bateratuz, ALTZOETA egin daitekean bezala, bi Uzuza aiek bateratuz UZURTZA egin zuala Tamaro lumalari zaarrak.

Ez naiz etimologian sartuko. Ez dakit gaiñera erri aiek gaur-egun bizi diran ere; eta, bizi ba'dira, gaur nola esaten zaien.

UZIRTZA'ren antzik aundieneko erria, Madoz'en, UZIEZA, aurkitu dut. Bai omen da UZIOLA abizen bat, Cadena y Vicent'ek dioskunez, eta jaun onen iritziz, Uziola orriako "UZIO" "OZIO"ren edo "IZIO"ren aldakuntza ornen da.

Baleike, baiña ez beti, "UZI"z asten diran izenak bai bait ditugu geiago.

Baita "UZU"z asten diranak ere: UZUETA, UZURRUN... Aurkituko dituzu geiago gure iztegietan.

Ez dira gutxi, askoz geiago baizik, jakiña, "UZ" aurreizkia daramatenak; Euskalerrri osoan daude zabaldurik. Baita, batzuk, gaur Euskalerrri ez diran bazterretan. UZIEZA adibidez, Palentzi'ren iparreko ibai baten izena. Antxe nonbait egon zan arabitarrek ain maiz aipatzen diguten AL-KILE: "Gaztelueta"; geroagoko GAZTE-LA'ren sorlekua.

Baiñan VIII mende artan, arabitarrek Araba'ri eta AL-Kile'ri erasotzen zietenean, arabarrak zirala dirudi "kile" edo "gaztelu" aien babesleak.

Bai ornen da UZ abizena ere euskal-abizenen artean, aipatutako Cadena ta Vicent'ek dionez.

UZ orrek, zer esan nai duan ez dakit. Ez daki Cadena y Vicent'ek ere, "apellido de desconocida interpretación" dala bait dio.

UGGATATZ.— Serrano'k, UGGATARZ. Lengo bi Uzuza'en eta Urzanico'ren alboan zegoan. Gaur zer izen daraman, ez dakit. Ez dakite erabilli aal izan ditudan liburuek ere. UGGATATZ ori UGARTE-AITZ, UGARTAITZ, UGATAITZ, UGATATZ ote dugu? Ez noski. Mendi baten izena dala bait dirudi.

---

(1) D. Luciano Serrano, O.S.B. Abad de Silos. "Cartulario de San Millán de la Cogolla". Centro de Estudios Históricos. Madrid, 1930. pág. 13.

Badira Euskalerrian "UGA" daramaten toki-izenak; Ugarte, adibidez. UA berriz, Naparroa'n, Araitz'eko Arribe'ren auzo bat da. UGA soillik ez dugula, derizkiot.

Madoz'ek badakar Uga bat, baiña Madoz'en erri ori, Tenerifen' dago!!!

Danadala, larruki ontako UGGATZ orrek badu bere garrantzi-apurra, bera bait da gure "TZ"ren otsa lenengo aldiz "T" eta "Z"ren bidez ematen diguna.

\*\*\*

BILVERTES.— Serrano'k "V"z. VILVERTES. Ez dut erri onen aztarnarik ere aurkitu. Bi BILBIESTRE badira Burgos'en, baiñan bat egoaldean, eta bestea Burgos uritik urbillegi: VILVIESTRE del MUNO. Burgos'tik urbillegi, Ibero ibaiez iparrera, Menainguruan zegoan gure BILVESTRES au izateko.

Lengo idazlanean esan genduaneez, asko dira euskeran "BIL" aurreizkiz asten diran izenak, "BIL"en atzetik datorren VESTRES ori, ordea, ez dakit zer izan daitekean.

LONGAS.— Bizkai'n, Zalla'ren auzo batek LONGAS deritza. Kerexeta'rentzat, LONGA euskal-abizena da. Nik ezagutzen dut, Tolosa'n LONGARON abizen duan sendi bat; eta baita beste bat ere Donosti'n, LONGARAIZ duana.

Lopez Mendizabal'en iritziz, "L" protetiku edo alper-erantsiaren atzeko "ONGA" ori, "LARRE" omen da, ONDA'ren aldakuntza.

Bai ote? Etimologiaren arloan ez baít da iñor, ezer-asko dakianik.

ROCAS.— Billarkaio'ren alboko errixka bat duzu. Ez da lateraren itza, eta askoz gutxiago gaztelerarena, gaztelerarik ez bait zan orduan. Geroago erderatutako euskal-izen bat da beraz, ROZAS ori. Zer izan daitekean? Ez dakit. ROZAS orren azpian ARROI bat ote dago? Arroitzza agian?

Rozas asko dakarz Madoz'ek, eta, miresgarriki, ia dan-danak Españi'ren iparraldean daude: Burgos'en, Santander'en, Asturietan eta Galizi'n. Baiñan bat ere ez gaurko Euzkadi'n.

ALZAPARAPOS.— Ez dut, izen arrigarriko erri onen zantzurik aurkitu. Asieran zugaitz baten izena darama: ALTZA, baiñan ondorengo PARAPOS ori ez nik, ez beste iñork, ez daki nondik atera zigun TAMARO apaiz idazleak. Ea zuk, irakurle, argitzen diguzun izkutuki ori.

FLABIONE.— Rabio, maizko izena zan erromatarren artean. Ortik dator Flabiobriega ere. Gure FLABIONE'k badu euskal josteta jatorra: FLABIO-ENE. Mirentxu-Enea bezala. Kendu eiozu, euskal deklinabidearen atzizki dan, amaierako "A" ori, eta Mirentxu-ene geldituko zaizu. Berdin FLABIO-ENE: MIRENTXUNE; FLABIONE. Euskeran "O" gogorraren ostean "E" leguna ezabatu egiten bait da.

EZQUTI.— Berdin Serrano'k, baiñan izen orian "1" bat peitzen da: EZKITI. Ezki, gaztelerazko "tilo" dala gauza jakiña duzu noski. "TI" berriz ugaritasuna adierazten duan atzizkia. Ugari ditu euskerak zugaitz orren izenez asten diran izenak: EZKIOGA adibidez. Eta Araba'ko ESKIBEL, au, AITZGIBEL ez ba'da beintzat. Ez dirudi onela danik; naiz naiko arrazoa izan ez, Eskibel'en izena EZKIBAL ematen bait digu 1049'ko larruki batek.

ANGULO.— Billarkaio'ren alboan dagoan erria. Abizen lez, Euskalerrian, batez ere Bizkai'n, aski zabaldua. Euskal-abizena omen da, "Enc. Gen. Ilustr. del País Vasdionez; "ANGELO"ren aldakuntza. "Angelo" berriz "gamonal", ornen da; ots, ezpata-itxurako belar bat ugari dagoan tokia. Anguio, Arabako, Arceniega'n erreka baten izena ere bada.

BARCENA.— Erri au ere, Billarkaio'ren ondoan. Bada Bureba'n ere beste bat. Eta bi, Asturietan.

Ez du orrek Asturietako aiek euskaldunek eraikiak izan zirala esan nai. Berdintasuna ez baít da beti, erri-izenetan, aídetasunaren adigarri.

BARTZENA, euskal izena da ezpairik gabe, eta Kerexeta'ren ustez "artze", "arte" erderazko "enzino"ren zugaitz-izenetik eta "ENA" atzizki toki-adierazletik datorkigu. Ez ote dator ARTZE edo ARTZA, erderako "PEDREGAL"etik?

ANDALUZ.— Ez dizu iñork Andaluz ori IX mendeko Euskalerrian zer zan esango. Nik, bi gauzatxo esango dizkizut nere kasa:

1.<sup>a</sup>: ez duala Andaluzi'arekin zer ikusirik. Betika, esaten zitzaion orduan oraindik Andaluzi'ri. "EL-ANDALUS" arabitarrek sortutako izena da, baiña geroago. Orduan, "Españi", esaten zioten arabitarrek, Iber-Ugarterdian ariu zuten lurrari.

2.<sup>a</sup>: Euzkadi'n baditugula gaur oraindik kanpoko errien izenen antzekoak edo berdiñak diran erri-izenak: Malaga, indarra bigarren "a"n ipiniaz, Araba'n Erentxun'go toki baten izena da. Erdiario beeko larrukietan Araba'ko Foronda izeneko erri-anaidiari, BADAJOZ esaten zaio. Bai al dakizsu zer dan BADAJOZ ori? BADAIAOZ! —beste dokumentu batzuek ematen diguten lez—. BADAIA, anaidi orren gaiñean sarkalde-runtz dagoan mendiluze baten izena da. ZAMORA ere gure baserri batzuen izena dugu.

PANDO.— Agertzen da dokumentu zarrago batean ere: 807'ko larruki zaarrean: ..."in territorio Area Patriniani in loco qui dicitur inter Pando et Nozeto sico": "Pando eta Nozetolegor deritzaien arteko lurraldean".

Kerexeta'k dioskunez, Pando euskal-abizena da; Enkarterrikoa. Lopez Mendizabal'en ustez, berriz, "P" protetikuaz eta erderaz "pasto" esan nai duan "ando" edo "andi"z eratua.

\*\*\*

Alda dezagun gaiaz, izen-zerrenda au aspergarriegia gerta ez dedin. Jarraituko dugu, urrengo idazlanean, gelditzen zaizkigun izenen azterketa.

Bere burua eta bere ondasunak Oka-Mendietako Donefelis'en lekaidetxeari eskeintzen zizkiola adierazteko larruki au Tamaro apaizari idatziaz zion Konte Miren-zale ura nongo Kontea ote zan? Araba'koa agian?

Erdiario garaiean, Bureba, Oka-Mendiak eta baita Oka-Mendietako ego-malda ere, ia-ia gaurko Burgos dagoan tokiraiño, Euskalerrria ziran; Araba'renak ain zuzen. Izan zitekean beraz, alde ortatik, gure Didako, Araba'ko Konte.

XI mendean Araba'k konteak bazituala badakigu. Eusko-Laterri ortako Kontea bait zan Bela Ximenorena, edo Ximeniz, 882'an.

Baiñan 866'ean, Sampiro edestilari asturiarrak (960-1042) Araba'n buruzagi, III Alfontso Asturietako Erregearen aurka borrokan, EYLON zala diosku. Ez dirudi, beraz, bi urte leenago gure larrukiko Didako Araba'ko Konte izan zitekeanik, Araba'ko lenen konte aiek, mundua-zear edestiak erakusten dizkigun egiatzko konteak bezalakoak ba'ziran beintzat.

Eta, emen, nai-ta-naiezkua dugu galdea: Araba'ko Konte eta Bizkai'ko lenen Jaun aiek zer ote ziran?

Eusko-Laterrietako Batzar Nagusiek, guda-aroetan, izan zuten "Gudarako Aldundi" bereizi bat osotzeko oitura. "Diputación a Guerra" esaten zitzaion Gipuzkoa'n. Eta "Guda-Aldundi" onek, eta are geiago batzar nagusiek, bazuten guda-buruzagiak aukeratzeko eskubidea.

Ori ote ziran Araba'ko lenen konte aiek? Batzar Nagusi edo Kofradi Nagusi batek, guda-aroetan, orain au eta ori gero, arabar-gudarien zuzendari izateko aukeratzeko zitan buruzagiak?

Ori orrela balitz, izan zitekean Araba'ko Konte 864'ean gure Didako, naiz 866'ean, Konte, Bela Ximenitz izan.

Baiñan ez dugu, ori orrela izan zanik esateko, arrazoi bat bakarrik ere.

Alare, esan dedan ori ez duzu batere oiñarririk gabe esana; Eylon ura ez bait zan, dirudianeaz, beste konteak bezalakoa. Ez beintzat Sampiro'k ain ederki ezagutzen zituan konte aiek bezalakoa. Orregaitik, ez da ausartzen buruzagi ura arabarren



kontea zanik esatera. Soilki, konte baten antzeko zerbait zala, idatzi zigan; "Que parecía conde de ellos", B. Estornes Lasa'ren itzulpenean. (Laterazko lenen-idazkirik ezin aurkitu izan dut, orri auek idaztean ez bait nago Gazteitz'en).

Soilki buruzagi bat ote zan bd, arabarren konte zirudian Eylon ura? Arabarrek 866'ean maometarrei, —eta batez ere asturitarrei—, Asturietako bisigotei, aurpegi emateko aukeratua?

Adur txarreko gizasemea izan genduan Eylon Konte Jaun ura. Sampiro berak idazten duanez, III Alfontso'k garaitua izan bait zan, eta katez atxiloturik Obiedo'ra katigu eramana. Ez betirako, alatagutziz.

Alfontso III'a Napparroa'ko Ximena printzesarekin ezkondu zan. Ezkontza orren ondorioz? eman zion askatasuna Eylon Konteari. Erregin "gaskoiak" ori eskatu ziolako? Konte arabarra iaretuaz, III Alfontso'k, euskotarrak (Baskoiak, Sampiro'ren izkeran), baretu nai izan zitualako?

Berreun urte geroago idatzi zuan ori dana Sampiro Astorga'ko Gotzai aski abetza-lekeriz joak, bere erregeen gorazarrea egiteko. Euskaldunen aldetik ez dugu ezer idatzirik. Ez da beraz erreza, orduan Araba'n zer gertatu zan jakitea. Arras arrigarria bait da gertakizun ura!

Urte artan bertan, 866'ean, jantzi zuan III Alfontso'k Asturietako buruntza bisigota. Galizi'n ordea, aurka jeiki zitzaion Fruela Bermudez Kontea. Alfontso III'a, 18 urteko mutil gaztea, Araba'ra etorri zitzaigun igesi, "bere amaren aldetiko aideetara" Sampiro'k dionez, len Alfontso II'a, Muña Erregin euskaldunaren semea, etorri zan bezala.

Fruela Bermudez Galizi'ko Kontea Obiedo'n sariu zanean, ordea, Obiedo'ko aundikiek erailla izan zan. Eta, bereala, Obiedo'n dugu berriro III Alfontso, etsairik gabe Asturietako Errege.

Etsairik gabe? Ez noski. Urte ortan bertan aurka jeiki bait zitzaizkion arabarrak Eylon buruzagi zutela, Sampiro'k idatzi zigunez.

Urte baten epe laburrean, beraz, arabarrek, aurrena, III Alfontso, babestu egin zuten; eta, berealaxe, borrokatu! Guztia, urte beteko asti motzean! Borrokatu esan dut? Bai zera! Alfontso'ren aurka jeiki ondorean, Errege ura bazetorkiela jakite utsarekin makurtu omen ziran bá, zearo kukilduta!!! Arrigarria benetan. Gaur adiskide maitetsu; biar arerio zipotz; eta, bereala, borrokarik egin gabe, morroi ustel, lurrera makurturik.

Entzun ordea Sampiro berari, (eskuratu aal izan bait dut azkenean bere "kronikoia"). Ona bere itzak lateraz eta euskeraz:

—"Filius quidam perditionis Froila Veremundi, ex partibus Galaeciae venit ad inquirendum Regnum sibi non debitum. Rex <sup>Y</sup>ero Adefonsus, haec audiens secessit in partes Alavensium. Ipse <sup>Y</sup>ero nefandus Froila a Senatu Ovetensi interfectus est. Haec audiens rex ad propria remeavit et gratifice susceptus est".

(Froila, Beremundo'ren seme gaitzesgarria, berari ez zegokion erregetzaren billa etorri zan Galizi-aldetik. Ori jakitean, arabarren lurretara iges egin zuan Alfontso Erregeak. Froila maltzur ura, ordea, Obiedo'ko Senatuak illa izan zan. Ori entzutean, Erregea, berera itzulita an alaiki onartua izan zan").

—"Nuntius ex Alavis venit, eo quod intumuerant corda illorum contra Regem. Rex <sup>Y</sup>ero haec audiens illuc ire disposuit.

(Mezulari bat iritxi zan Araba'tík, (1) angoen biotzak erregearen aurka puztu zirala esanaz. Erregeak, ori jakitean, aruntz joatea erabaki zuan")

—"Terrore adventus eius compulsi sunt, et subito iura debita cognoscentes supplices colla ei submiserunt, pollicentes se regno et ditioni eius fideles existere, et quod imperaretur efficere: sitque Aravam obtentam suo imperio subjugavit. Eylon <sup>Y</sup>ero qui comes illorum videbatur, ferro victum secum Ovetum atraxit".

("Kizkurtu ziran arabarrak aren etorrera jakitean, oartu ziran bat-batean erregeari zor zaion omenaz, eta makurtu zituzten aren esanera buruak, mendeko zintzo izan-

---

(1) "Arabaeatik, —ex Alavis— pluralean, askorenean, Sampiro'ren idazketan.

go zitzaizkiola eta agintzen zien oro eginen zutela itz-emanaz. Orrela ipiñi zuan (Alfontso'k) Araba bere menpean. Berekin eraman zuan katez loturik Obiedo'ra, arabarren kontea zala **zirudian EYLON**) (Florez: "España Sagrada", Madrid 1789, XIV, 452).

Izkera arroputz orrek, errege bisogot guztien leloa dakarkigu gogora: "domuit vascones". Ori, bisigoten liburuek diotenez, errege guztiek egin ornen zuten. Iñork egin ez zualaren siñale zorrotza.

Ain zuzen, Sampiro'ren solasaldi orrek danak, Errege bisigotei, goratzarrerik aundiena lez, erasten zitzaien "domuit vascones" ura, Asturietako III Alfontso'ri erasteko asmatua izán zala dirudi. Ez da beintzat uste-apurrik txikiena merezi Zezakean gauza! Ona zergaitik:

1.<sup>8</sup>: Sampiro'k Euskalerraren barruan zer gertatzen zan ez zekiala dakusgu. Ala, ez zekian, Eylon Araba'ko Kontea zan edo ez zan. Orregaitik, Araba'ko Kontea **zirudiala** idatzi zigun;

2.<sup>8</sup>: "Diccionario de Historia Eclesiastica de España"n, Perez de Urbel beneditarrak, naiz bera Españi'ko Erregeen miresle portitza izan, Sampiro'k "egiarekin gezurra nasten duala", diosku.

3.<sup>8</sup>: Eta gauzak illunago eta okerrago ipintzeko, Sampiro'k III, Alfontso'ren aurka jeikitako iraultzalari aiek arabarrak zirala, ziurki aitortzen ba'du, ziurtasun berdiñarekin aitortzen digu aren denborako "Kronikoi Albeldatarrak", iraultzalari aiek... gaztelarrak izan zirala!!! Borroka, beraz, Araba'n ez baiña Gaztelerrian izan zala! Baiñan, Albelda'ko Kronikoiak ere ez du konfiantza aundiegirik merezi. Ez zan bá orduan Gaztela'rik.

\*\*\*

Gure dokumentu auetako Didako au, ez zan, beraz, Araba'ko Kontea. Gaztela'koa ote zan? Ezta're. Orduan oraindik Gaztelari'k ez bait zan. Oka ibaietik aruntz, Araba eta Asturien arteko lurraldeari, AL-KILE esaten diote arabitarren edestilari guztiek. Eta Al-Kile ori ez dute Asturiekin alkartzen, Araba'rekin baizik. Nere ustez, Al-Kile edo Gaztelueta ura, Amaya uriaren inguruan zegoan, gero Gaztela sortuko dan lekuan. "Harto era Castilla pequeño rincón cuando Amaya era cabeza y Otero el mojón", dio gaztelarren esaera zar batek.

Baiñan Gaztela jaio aurretik Al Kile edo "Gaztelu" aiek arabarrek babesten zituztela dirudi, eta euskalduna zala seguruaski, Al-Kile'ko Konte lez, 865'ean Ibn Adhari edestilariak aipatzen duan Roderik. Lurralde aietako lenen kontea.

Beste edestilari arabitar batek, Roderik, Asturietako Ordoño I'aren aide zala omen dio, nunbait irakurria daukadanez. Baiña orrek ez du euskalduna ez zanik esan nai, emakume euskotar batekin ezkontzen, Fruela Erregea, bakarra ez zala izan, bait dirudi. Ez diot au, arrazoirik gabe.

Ibn Adhari'k, Ruderik'en aurka aipatzen dituan borrokak, Bureba'n gertatu ziran, ez Al-Kile'n. Baiñan arabitarren edestilari danek eta baita Ibn Adhari berak ere, Bureba Araba zala esaten digute beti. 865 artan, Bureba'ren babesketa arabarrek Al-Kileko konteari, Ruderik'eri, gomendatu ote zioten? Ez noski euskalduna izan ez ba'litz.

**Latiegi'tar Bixente**

# YAKINTZA

## KEZKA ETA AMETS

Euskalerrria'rentzat ez da arnasaldi txikia, betiko bakaldun erri-zapaltzaille oien oiñordeko bat, Gernika'ra, euskal-eskubide guztien irudikur dan arizpera etorri eta Euskalerrria beti gogorkeriz erasoia izan dala eta zuzengabekeri aundiak egin zaizkiola aitortzen entzutea. Are eta itxaropengarriagoa da Espaiñ'ko Legedi Nagusian, Euzkadi Aberri bat dala idatzirik erasotea; Jaurilaritza bat aukeratzeko eskubide osoa daukala erabakitzea; erri-diru-arazoak zuzentzeko buru-iabetza aitortzea eta Aberria zaintzeko, bertoko Ertzaintza, legez onartua izatea.

Gure Aberri zapaldua zutitzeko duela urterik gutxi, amestu ere ezin genezazken eskubideok oro berreskuratzeaz, itxaropenik aundienak sortu lezaizkigukuen arren, garrantzian, eskubide guzti oien gaiñetik dagoan iatorrizko nagusiena eskuratu dugu, Euskera, Euzkadi'ko legezko izkuntza bezala, Espaiñ'ko Legediak sendetsitzea.

Mende luzeetan ostikopetutako Euskera goieneko mailletara laso lezaken egazkiña gure zelaietara ietxi zaigu; belaunez-belaun, ainbeste mende zear itxaro izan dugun abagune eta mugona azkenik egokitu da eta oraingoan ere egazkin ori eartzeke iges egiten utz ba'geneza, Euskalerrriarenak egingo luke betiko. Irugarrena dala auntzena esan oi da eta oraintxe aurkitzen gera il ala bizizko tepertu larrieneko unean.

Ainbeste iazarketa igurtzi ondoren, lur iota daukagu gure Euskera. Euskeraren maitaleak arrituta eta gogoan iota iartzen dira eskuarki, ainbat euskal lurraldeetatik izkutatu dala ikusita.

Kristo ondorengo leen mendean, ona Euskeraren lur-mugak: Santander aindik, ia Gijon ingurutik, Burgos ondoko Baskonzellos eta Salazar barna, Soria eta Duero latsaraiño zegoan zabaldua eta andik Kalatayut zear Zaragoza baiño ere askoz beera-gotik, Lerida'tik urruti gabe, Andorra eta St. Girons'tik Adur ibaiatz gora, Burdeos inguruetaraiño edatua zegoan.

Bartzelona eta Tarragona baranoko euskerazko toki-izenak adierazi lezaigutenez, ba dirudi Mediterraneo itxasoraiño ere iritxi zitekela eta Prantzi aldean, Akitani guztian ere, Euskera itzegiten zala.

Amar mende geroago, euskerarentzat, Santander aldeko lurak oro, Santoña'raiñoakoak galdu ziran; Burgos aldean, Bureba guztia; Zaragoza eta Duero'ko eremu zabalatatik, Errioxa'raiñoako guztiak eta Prantzi aldean, Autx eta Erriberri'koak oro, Tarbes eta Dax'eraño. Bosteun urte geroago, Kastro Urdiales'tik asita, Ebro'ko Miranda eta Errioxa dana ariu zizkiguten Kastilla'ko erregeek eta Euskera izkutarazita, erdera sartu zuten.

Ondorengo 1950 bitarteko urte oietan, erdel-eleek, Kantauri'ko Bizkai Kolko'ko izpazterrera txokoratu dute Euskera eta orain, ia illurren, Bilbo'tik Baiona'raiñoakoan bakarra bere bizi aztarnak sumatu litezke.

Kristo ezkeroztik, Kantauri'ko itxas-kolkoan babes billa gorde zaigun arteraiño Euskerak galdu dituan lurralde zabalok, begiz ikusi genezazke, baiño begiz ikusi

ezin genezaiokeen minbizi ikaragarri bat eta inortxo gutxi iabetzen danez, oso gutxi aipatzen dan bat, bere soin barruan darama Euskerak eta sendabideren bat aurkitzen ez ba'diogu, orrek eramango du betirako illobira. Arrixku ikaragarri ori, men zear, bidean banan-banan uzten ari dan soin-atal eta bearrezko iantziak gal galdutako mintzo saillaz, bere urrezko altxorrik aberatsena ondatu diogu oartu ere gabe Euskerari, azkenean, asanai guztiak azaltzeko, eskutxoko bete euskerazko itzakin bakarra aurkitu galararik.

Egi gordin onen adierazgarri bat, ene erri maite txiki ontantxe daukat, Euskeraz bakarra beti mintzatu dan erritxo ontan. Bere txokotik, berrogei u rtez atzerriraturik egon bear izan dut; orain barrero, lainkoa lagun, etxeratu naizenean, guk txikitan egunoro esaten ginduzen eundaka itzak, gaurko aurrak, erabat aaztuta eta galduta dauzkatela arriturik oartu naiz. Egunoro beiak ietzi bear dituan Euskera bakarrik dakian ezkondu bati, **erreberoa** aitatu nionean, zer ziteken itz ori itantzeaz, sor eta lor utzi ninduan. Erreberoaz mintzatzen geranok ere, erroa, beiazen titia dala aazturik, zer diogun iakiteke, erroberoa esan orde, erreberoa diogu, Euskera garbia ondatur. Giputx bati, "gura duzu?" itantzen ba'diogu, zer iardetsi iakiñeziñik utziko dugu eta anadean egunoro berorrek darabilki itz ori ezpaiñetan, parraguraz, azkuraz, loguraz eta abar mintzatzen danean.

Euskaldunok, lakintzako lkaskizunetako Aulkira Euskera iñoiz iaso ez dugunez, mendietako bordatan, itxas zabaletako ontzietan, arro artean galdutako errixkatan, sukalde txokotan eta batez ere Euskeraren maitale batzuek txintxo iaso duten Idazti eta Iztegiatan, erabat sakabanaturik daukagu gure mintzaira aaztua. Azken mende ontaraiño ez genduanez euskaldunok batetik besterako ibilbidetarako iñolako burtailurik, bertoko biztanleak eta errixkak, elkarrenganako artueman aundirik gabe, izugarrizko bakardadean, gizaldi luzeak iragan dituzte eta sei euskal erkiak, elkar ezagutu gabe, Kristo'ren garaitik gaur a rte bizi izan dira, ain elkarren arrotz, izan ere, Auiña mendiz onuzkoek, aindikaldekoei, prantsesak deitzen bai diete eta angoek onuzkaldekoei españolak, elkarren ezagutzaren arrastorik ere gabe.

Ez da beraz arritzeko euskal txoko batean galdu diran itzak, beste txoko batean bizirik aurkitzea. Orrela aixa uler genezake Bizkaia'n arduraz iaso duten "gura" itza, Gipuzkoa'n galduxerik eta Gipuzkoa'ko "naia", Bizkaia'n erdi aaztuta, bi erkien artean ulertzeko eragozpentxo batekin aurkitzea, bien ala biek Euskerarik iatorrenean mintzatu arren. Orixe bera agitzen zaigu giputx eta laburtarren artean ere, gure "erantzun" aditz itza, aiei, arrotz-xamarra egiten bai zaie eta aien "iardetsi", esangura berdintsukoa, guk erabat galdu dugunez, iñola ere ez bai diegu ule rtzen.

Euskeraren ez-iakintasun eta landueza ortatik datorkigu bada alkar aditu eziñezko korapillotxo ori.

Ain urrutira ioan bearrik ez daukagu egi au nabaitzeko. Berastegi'n egunoro erabiltzen dan "mintza" elea, auzoko Ezkurra'n aaztuxerik daukate eta esangura berdinaikin an erabiltzen duten "merdola", Euskalerrri guzian galdu da eta idaztietan eta Iztegiatan ere iaso gabea dago.

Euskera illobira daraman minbizi onetzaz ongitxo iabetu ziran guda aurreko euskalzale iator guzti aiek, uru-belarri ekin bai zioten bizi berri baten arnasa eta odola Euskerari txeratatzen. Iñungo idazti zaar eta Iztegiatiko berbak biltzen eta erriari ira eta zabalbide guztietatik, sutsuki saiatu ziran, baita gaur-gaurko aurrerapen guztietarako eundaka itz egokiak sortzen ere, erdera motzak bezala, itz oiek sortzeko, latiñera edo gerkerara ioan bearrik ez bai du, bere euskal arrobi aberatsetik, aienetik baiño errezagoak eta iatorragoak, atera bai lezazke. Ziur egon gindezke, garai artan abertzaleek Euskerari eman zioten xuxperraldi bizi arri esker, etsaiak zapalduta iduki duten berrogei u rte luzeegi oetan bizirik iraun aal izan duala.

Sakaskeri, paparzkeri eta berrekeriak izan zirala?... lakiña ba! Orlako eretietan, aurrendari izan guraz, aipu zenbait lortu bearrez eta euren burua goi maillan azaldu nairik, itz berrien o rtzeko ardurazko lankizun ontan, Euskera sustraitik ezagutu gabeko eta gaitasunik ez duten ausarditsu geiegik muturra sartzen bai dute.

Ala ere, euskaltzain jatorrena dan gure erriak, galbaia erabiltzen ederkitxo daki, itz egokiak onartzeko eta traketsak eta itsusiak bolborrera iaurtitzeko, oartu gindezke-nez.

Euskalzale zintzo aiek iator iokatu zutela iabetzeko, aski dugu, iokabide aren etsairik aundienak, maxiatzaillerik zorrotzenak eta gorrotorik geiena azaldu dienak, nola iardun bear izaten duten ikustea, erriak ona rtu ditualako, aiek egokixko asmatu zituzten itz berriak eta zabaldu zituzten zaarrak, itzetik ortzera eta idazlan guztietan erabiltzera bear turik aurkitzen bai dira, **aberria, ikurriña kirola, txirindulari, iaurgoa, iaurlaritzza, ertzaiña, andereñoa** eta errolda luzexko bat. Iokabide arekin Euskera guztiz aberastu ez ezik, goienetako maillataraiño iasotzeko bidean iarri zutela zalantzarik gabe aito rtu bearra daukagu.

Urte luzeetako esetsaldi gordin aren ondoren, askatasun bidean iarri giñanean, ostera ere bide egoki ura artu izan ba'genduan, gaur Euskera, Europa'ko beste izkuntzen maillara iasoa izan ziteken.

Tamalez, abertzale iator aien areririk zitalenak, beste burubide batzutako euskaldunak, gure anafak bai, euskalzale aien aurka euntalako zabalkundea egitiñik, uste oneko askori, kalte aundia ekarri ziola Euskerari aien iokabideak sinistarazi izan diote eta naiko beartindarrez beste bide batetik abiarazi dituzte.

Uste oker orren eragiñera noski, euskal-idazle askok, asmorik onenaz, erri-euskera bakarra erabiltzera io dute. Euskeraren iraupiderako eta erriaren ulerbiderako eta irakaskintzarako iokabide ori bear bearrezkoa zaigula edonork uler lezake eta idazle jator oiek, lan bikaiña egiten ari dirala ere begien aurrean dago, alan guztiz ere bi akats larriko ez ote dituan iokabide bakar orrek kezka estu bat iartzen zait. Euskera amiltzen doan larrubidetik ez bai du aterako.

Erriak galdu gabe irauarazita, oraindik mintzabidean dauzkan "eskutxoko" beteko itz oiekin aski ongi ari litezke idazle iator oiek erri-gaietaz bakarrik, aizkora lanaz, pillota iokuz, arri iasotzez, erri-iai eta dantzaz, larreko, mendiko eta baserrietako arazoaz, naiz olerkiz, naiz itz lauaz iardun bear dutenean, baiñan goragoko maillako gaiak, iakintzakoak, gaur-gaurko ainbat aurrerapenetakoak, aberri arteko artuema eta ola-lanetakoak idatzi bear dituztenean, inka larri-nean, erriko euskal itzik gabe idatzeziñik aurkitzen dira.

Era ortara, banankeri izugarria egiten dugu, iakintzapeko euskaldun baserritarra eta goi iakintzako erdeldun zalduna. Txundigarriena berriz, berexkeri au, gizartean ezberdintasunik izan ez dadin burrukarik latzenak darabizkitenek egiten dutela!

Bigarren kezka berriz, auxe da: Gorago aipatu genduan, erria, abiada bizian, urtetik urtera euskal-mintzo ugari galtzen ari da. Zer egin bear dute erri-idazle oiek gaurko itzak ere ule rtu ezinik erria aurki litekenean... Unamuno'k zionez, Euskera betirako pakean eortzi?

Euskera, —aurrerantzean iraungo ba'du— baserrietatik urietara eta mendi bide errietako karriketara ekarri bear dala garbi ule rtu du gaurko abertzale gizaldi berriak eta alegin txalogarriak, katazka latzak eta ostetza izugarriak ibilli-arazi ditu asmo orren lorbiderako. Ikaskizunetako ikastol-ateak ideki zaizkio, irrati-bide guztietara zabaldu da, irratikuskiñaren bidez euskaldun danen begietatik eta bela sartzeko aukera ba du, iaurlaritzako Aretoetan eta Lege-Biltzarretan aulkia artu du, Udaletxetan, Salostetxetan, Aurrezki Kutxetan eta Diruetxetan ere leku egin diote eta Euzkadi guzian iñoiz aurkitu ez duan aukera oraingoan Euskerak ba duala, itxaropentsu aitortu genezake.

Baserriko zarpa zaar oiekin Euskera gure uri aundietan guztiz lotsagarri age rtzen dala oarturik, bere kutxa zaarretan gorderik dauzkan igandetako soiñekorik apaiñenaz jantzi-berritu orde, kaleko erderazkoekin, iazkera berriko erdel neskatil bat bezala, zomorrotu dute.

Uriko aurrerapen guztietaz mintzatzeko, euskerazko itzik aurkitu eziñean, erreze-nera io da, euskal aurrizkiz edo atzizkiz erdel itzak euskeratuta, adierazgarriko euskal-itzik aurkitu eziñezko oztopo danak gainditzeko, EUSKERA BATUA erdel-

laguntzaz asmatzera. Baiña iokabide onekin, auntzenak iokatzen ditugun irugarren abagune ontan, iakintzara eraman bear gaituan egazkiñaren orde, oker-utsegiterik larrienaz, amil-bidera geramazkena artu ez ote dugun kezkarik eta bildurrik aundiena izatekoa da.

Inguratu duten izkuntza guztietatik Euskera besterik dalako eta aidetasunik ere ez zualako, ziur egon gindezke arri-arotik gaur arteraiñokoan ogeitabost milla urteko garai luze ortan bizirik iraun aal izan duala. Orain erderakin erabat lardaskatuta lorrintzen ba'dugu, zer gerta lezaioke?

Artu dugun okerreko egazkin orrek, nora garamazken argibide bat izan dezagun, eundaka adibide eman gentzazken arren, ona batik bat bi nabarmen: lzenburuko izki aundietan, Gipuzkoa'n zabalduenik dagoan egunkarian, auxe irakurtzen nuan berriki:

"PROPOSITU ENMIENDA ZKOA". Irratikuskiñatik albisteak bala-balatzen ari zan berri-emalle batek, onela ziotsan: "Polizien mandoak, Komisarian enzerratu dira".

Ene alboan aurkitzen zan baserritar batek, esonda barregarri au egin zuan: "Arraioa! Mando iakintsuak! Elkartetan ere sartuak dagoz nunbait".

Esan naiezkoaz besterik adierazten digun mintzairaz nora goazke?

Artu dan okerreko egazkin orrek ondamentira eramango gaituala ikusteko, bi argibide nabari-nabariak askiko ditugu: Eusko laurlaritzak, Aldungoak, Udaletxeak, Aurrezki Kutxak eta beste ainbat Erakundek, erderaz eta dalako Euskera Batukoan ele bitan argitaratzen dituzten agiri eta mezu-idazki guztiak, ez al da egi gordiña euskaltzale ikasienak ere auntzerderazko zapo-euskera naasi ori ezin ulertuz, erderazkoa bakarria irakurtzen dutela? Baita baserritarrik iatorrenak berak ere erderazkora iotzen dutela aitortu bearra daukagu, erabat itxututa ez egotekotan beintzat eta biotz gaiñean eskunaba iarrita. Bide ortan, zenbat egiñal, lerren eta txanpon alperrik ondatzen ari geran ardurazki oldoztu bearra daukagu. Ez al da egia, Euskera, burua ezin altxaz, erabat erderaren uztarripean uzkaldu dugula? Auxe da orratio ustekaitzenik eta txundigarrienik, "INDEPENDENTZIA" oiuka, une oro sor-ta-gor gauzkate-nak dirala ain xuxen ere uztarripe ortan Euskera eukitzera geienik leiatzen diranak!

Okerreko egazkin orrek amil-zulora eraman gentzakeala kezkatzeko, ba dugu orratik beste ikasbide eta azkoraien argienetakorik. Euskera baiño indartsuagoa eta osasuntsuagoa zan latiña, goi-iakintzatak mailletaraiño iakintsuenak iasoa eta landua, orduko ezagututako Europa'ko lurralde guztietara zabaldua, erdel izkuntzak erderaz lorrindu zutenean, erabat betirako nola izkutarazi zuten ikusteak, gure aulagoko Euskera gaixoa, itxas txokora babes billa baztertua, erdel itz oien minbiziarekin kutsatzen saiatzen ba'gera, bildur izatekoa da latiña baiño are errezago beinbetirako ez ote dugun izkutaraziko.

Ikasterakoan, izkuntza danak dituzten zailtasun eta oztopoak katramillagotzeko, "Batuko" idazkerak, erderak bezala, **H** bear dualata, ain garbia, bakun eta xotilla genduan Euskera, ezer esaten ez digun, begiak lausotzen dizkigun eta euskaldun guzién artean naspílla, asarrea eta berexkeria besterik sortzen ez duan "H" ez iostera beartu gaituzte.

Asmatzailleek ez ezik, erabaki ori aurrera eramaten lagundu duten guztiek, erantzun larria eta aztuna soinbururatu dute betiko.

### **Jakakortaxarena'tar Txomin**

("Erlezaintza" liburuen itzaurretik).



# EUSKAL-ERRIKO MERKATARITZA

## ITXAS-ONTZIAK

"Euskalduna arbolaren etsai da" keixatzen dira frantsezak. Bizkaia zegoan "arbolaz betea" eta Lege Zaarrak bizkaitarrei baimena ematen zien arbola oiek botatzeko, bear zituenean etxeak egiteko, oletako egur-ikatsa egiteko eta itxas-ontziak egiteko. Olagizonaren ondoan, barkugillea.

Barkuak egiteko egur asko bear: "Domingo de Goizueta, iru galeoi egiteko, 1.000 aritz eskatzen ditu. Errenderian 800 toneladako ontziak egiten zituzten. Zenbait Errietako Udaletxeko agintariek beuren mendietako zugaitzak gordeta zeuzkaten oleetarako eta itxasontzietarako. Zura bear ugari itxasontzi aundiak egiten bait ziran; baiña, arbola bat kentzen zanean beste bi aldatu bear ziran kendutakoaren orde. Udaletxetako poltxaren amarrena arbola berriak aldatu eta zaarrak zaintzeko bear zuan izan Gipuzkoan Lege Zaarraren aginduz: "distribuyan la décima parte en plantar árboles y en guiarlos y beneficiarlos; y que no se permita cortar ningún roble por pie, sino es que esté inútil" (Tít. 38, c. 3).

\*\*\*

Barku asko. Bizkaian bertan 200 baiño geiago zeuden une berean.

Trastamara'ko Etxeak itxasoan segurantzia sortu zuanian, kostaldeko erri guztietan sortu ziran barkugilleak: Bilbao, Portugaleta, Plenzia, Bermeo, Gernika, Lekeitio eta Ondarroa, guztiak ziran barkugille.

Gipuzkoako Fueroak díonez baztar guztietan daude barkugintzarako olak eta ontzi mota guztiak egiten dira bertan: "Capitanas Reales Armadas, vageles de guerra y de carga en muy copioso número" (Tít. I, pág. 4).

1548'an ba ziran Bilbo-inguruan, bere poltxikotik iru eta lau barku urteero egiten zituzten bizkaitarrak.

1552'an, Flandesera egiten zan merkataritza La Rochelleko itxaslapurren eskue-tatik gorde aal izateko, an zebiltzan Gipuzkoako barku armatuak amar ontzi aundi, bi zafra eta millaka gizon beoien barruetan. Oien antzera berreun urte beranduago Real Compañía Guipuzcoana de Caracas de Indías egiten zuna Venezuelako kostaldean itxaslapur eta kontrabandoaren aurka.

1580'an Portugal eta Espaiña itxasoetan indartsuen egin ziran; ondoren, orra gure kostalde guztiak Europako barku-lantegi egiña. Inglaterrako erregeak, Frantziako dukeak, Andaluzi eta Italiako zaldunak, Euskalerrira etorri oi ziran barkueskean.

Errege katolikoak, euren barkuak egiteko, Sevilla eta Bilbo aukeratu zituzten. 1475'an agindu au ematen diote Bizkaiari Errege oiek: "que preparen el mayor número posible de naos, galeras, carabelas y fustas". Andik denbora gutxi barru, eskabide berdiña Gipuzkoari, eta berriro Bizkaiari. Bereala 50 galeoiek irten zuten Napoles'erako. Itxasoko ondamendiak, 25 ontzi ondoratu ziran batera 1493'an, ez zituzten batere ikarutzen; une batean sortu ziran berriak aien orde.

Burniaren egoerarik onena XIII'tik XVIII'ra izan zan. XIII'an 5.000 tonelada burni ateratzen zan Inglaterrarako Baionako portutik. Merkatu ori zala-ta, ontziak ugaritu ziran Baionan.

1248'an, Sevilla moroeri kendu ziotenean, San Fernando Erregearen denboran, Bonifaz Almirantea berbara etorri zan gure portuetara, burruka artan parte artu bear izan zuten barkuak eta bere pertretxoak ikustera bere begiz.

Malaga artu bear zaneko burrukan ere an ziran gure ontziak.

Gerora, Kolon'ek egin bear zuan bigarren ibillaldirako, euskal itxas-ontziak auke-ratu zituzten Iñigo de Adieta Lekeitiarraren menpean; irien ere bai Bermeotik 1493-Viran. Portugal zebillen urdurik ordu artan, eta bada-ebada euskaldunak, Ameriketara barik, emen bertan eduki zituzten. Orrela, Muley Boabdil errege mairua Almuñe-car'tik Berberia'ra eramateko erabilli zituzten gure ontzi oiek. Ondoren Granadako kostaldea zaintzeko ere gure barkuak izan ziran, Garcia Lz. de Arriaran eta Juan de Lezkano buru egiten zutela...

\*\*\*

Gure portuetatik mundu guzira bidean irietzen zuten ontziak burni-meatza, burnia, galtzairua, burni-iltze, granada-bola-burnizko, artille-saka, ardo-upel, narru, fruta, egur, arraiñ eta abarrekin. La Rochelle, Nantes eta Flandes ziran tarteko-bideak gure artilleak zabaltzeko; gero, "Bolsa de Comercio" euskaldunek Brujas'en zeukaten alkarteak bide oiek luzatzen zitun Tronsberg, Bergen, Lund, Scarsa, Stockholm, Upsala eta abarreko kaietaraiño.

Euskaldun asko zabaldu zan munduan-zear, eta bertan gelditu. Ala gertatu zan Brujas'en ere. Ba zan an "Casa de Contratación de Vizcaya" eta bere aurreko plazuelari "Area Cantabrorum" esan oi zioten. Brujas'en Bezela gelditu ziran La Rochelle, Nantes, Saint Malo, Rendon eta abarretan. beti burni-tratoan.

"Consulado de Bilbao" elkarteak sortu zitun estranjeriko kai askoetan "Casa de Contratación" zeritzanak. Ala Nantes'en ere. Orrela sortu ziran bideak artu-emantetan mundu zabalarekin jartzeko U.S.A. Amerikatako-Estadu-Batuak itxasorako legerik sortu ez zuten artean, "Consulado de Bilbao"koa erabilli zuten geienetan.

Sevilla bertan ere, XIV eunkia baiño leen, an zeuden euskaldunak merkataritzan bezela itxas-ontzietako buru. Bertan sortu zituzten itxas-gizonen Kofradiak, inguru aietan eta Mediterrane itxasoan zebiltzen euskaldunak ibillerak zaindu eta zuzentzeko.

Cadiz'en antxiñatik zegoen bizkaitar-pillotuen Eskola. Gerora bere antolamentua onartu zuten Errege Katolikoek. 1403'an Cadiz'ko euskal-gizonen izenak aitatzen dira, Levante'ko itxas-zaindari bezela.

\*\*\*

"Itxas-gaietan argiak" eta "munduko itxas-gizonik onena" esaten dute euskalduneri buruz, Errege Katolikoek garaiko bi idaztiek. Baiña, okerra gertatu zan Fernando eta Isabelek 1501-VIII-11'an, atzerrietara barkurik ez saltzeko ordena eman zutenean. Kanpora saltzerik ez ba dago, barrurako ere ez ditugu egingo, ezta geu itxasoratu ere, izan zan euskaldunen erantzuna. Gerora gauzak konpondu ziran eta euskaldun barkugille eta itxasgizonen izarra goi-goienean iraun zuan dizdiratzu.



## ARMAK

Gure sal-erosketako laugarren alderdia, armak ziran. Armak ez-ezik bestelakorik ere egiten genduan: errotak, labeak, tella-fabrikak (loi-olak), burni-aria, burni-kolatua, galtzairua, urraida, oialak, mantak, marragak, txapelak, kapelak, eunezko mainderak, burdi-mota guztiak eta abar.

Oñatian egiten zituzten "husos, prensas, planchas, palas, picos, zapapicos, azadas, mazos, yunques, bogas y otras piezas..." Balaustrak, sartagiak, burni-ariak eta abar egiten ziran Durango aldean. Narru-lantegiak Tolosa; oialak Erronkarin...

Eta, olak baztar guztietan.

Nafarroako mendi-aldeetik ba zeuden berrogei ola. Bidasoatik ifar-aldera ola-lantingtzak Larrañe eta Baigorri inguruakoak ziren.

Danetatik egiten zuten gure langilleak; baiña, arma-gintzan izan ziran benetako maixuak. Orrelakoak edonun ziran; baiña, bereiziki Soraluze (Plazenzia), Mondragon, Bilbo eta Orbaizetan. Soraluzeren goitizenak, "armas de España" eta "la madre de la armería" izan dira. Flamenko batek zionez (Lomot jaunak) "Europa guztian leena". Deba-ibaieko galtzairuaren tenplea, onena. Mondragoeko ezpatak oso ziran famatuak. Baita Bilboko armak ere.

1480'en Isabel erregiñak bizkaitar armagille maixuengandik auk eskatzen ditu: "15.000 lanzas de mano, 4.000 paveses, lombardas y cervatanas...".

1488 eta 1489'an eskari berdiña dator bizkaitar eta giputzentzako, egin zezatela arma eta kañoirik asko Sicilia'ko erreinuarentzat. Berriro eskabidea bizkaitar, giputz eta arabatar maixuentzako. Guztiak, ordea, bear beziñ bizkor egiñ eziñ, Europako ere ezpata-eskabide luzeak bait zituzten.

Nafarroa berbera ere ba zan zer-edo-zer: Estereibar ballarako Eugi errian ba zuten Real Fábrica de Armas bat eta Orbaizetako olak, Pirinee mendietan, burnia lantzen zuten eta munizioak egiten. Lau labe zeuden errian bertan: bik Espaiñiarako lan egiten zuten; beste biak Indietarako. Labe oiek illero 1.200 kintal baiño geiago ateratzen zuten.

Soraluze'ren ingurua, arma-fabrikarena alegia, oso zabaltzen zan. Ona inguru orretan dauden erriak: Ermua, Elorrio, Arrazola, Abadiano, Durango, Berriz, Zaldibar, Mañaria, Mallabia, Zenarruza, Bolibar, Gerrikaiz, Markina, Markina-Etxeberri eta Ondarroa Bizkai-aldeetik; Eibar, Elgoibar, Mendaro, Deba, Motriko, Bergara, Elosua, Angiozar, Elgeta, Mondragon, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriza, Legazpia, Urretxua, Azkoiti, Azpeiti, Urrestilla, Zestua, Arrua, Oikiña, Ipiñarrieta, Zumaia eta Ormaiztegi Gipuzkoan.

Bazan Errege-Etxea ere Soraluzen. Armegille maixuek elkartu ziran "Fábrica de armas portátiles de fuego, y blancas, de guerra de la Villa de Placencia" erailtzeko. Geroago Erregeari utzi zioten Lantegiaren nagusitasuna, orrela Gudarosterako armak egiñaal izateko.

Ona orduko idazti baten xeetasunak: 1.748'tik 1833'era, 564.000 arma egin zituzten Gudaroste Nazionalentzako, eta 30.000 Frantziarako: fusillak, karabiñak, baionetak, ezpatak, sableak, petoak, espalderak, pistolak, eskopetak...

\*\*\*

Arma-eskabideak edonundik datoz. Mazalkibir konkistatzeko kañoiak Bizkaian erosi zituzten 112 lonbarda. Arma oien izen onak eraginda, Beljika eta Alemaniako arma-gilleak emengoen markak jartzen zieten euren armeeri; baita alogera ederrik eskeiñi emengo langilleak ara joatekotan. Joanik ziran bat baiño geiago. Flandeserako boluntario apuntatu ondoren.

1509'an ere an agertzen dira Afrika'ko Orangen Cisneros'ekin joanak.

Espaiñian zer esanik ez: guztian zabaldu ziran. Madridedeko Carlos V'ren Real Armería'ra. Toledo'ko armagilleak, XVIII'an, izen auek zituztenak ba ziran: Arizaga,

Garate, Leizalde, Agirre, Orozko... Granada'ko fusil-fabrika jaso zutenak ere euskaldunak ziran. Pedro de Aldazabal'ek antolatu zuan Jerez de la Fronterako arma-lantegia. Oviedo'n arma-fabrika eraultzeko Sorluzetik eraman zituzten gizonak. Eta Oviedo, Trubia, Grado eta Mieres'en fabrika berrietako gremioak sortu zituztenak plaentxiarrak eta eibartarrak izan ziran...

\*\*\*

Orain bukatzeko ikusi dezagun Hernaniko erriak Erregearekin egiten duen tratua: 20.000 kintal aingura egingo dituzte lau urteen buruan Erregearentzat. Urtea, 1.750. urrillaren 19'an. Gillasasti maixuak egiten zitun aingura eta burnizko txamartak oso onak ziran, Donostiako mollar ikusita, estranjeriako itxasgizonak esaten zutenez. Gillasti maixuak Aia'n zuan bere Arrazubia'ko ola. Amasa-Billabonan ere ba ziran, erri barruan, lau lantegi aingura egiteko.

### **KONPETENTZI GAIZTOAK**

XV eunikiaren erdi-aldera agerizen da Europako merkatuetan Suezia'ko burnia. XVI'an euskaldun burniaren neurrian jartzen da.

1559'an Gipuzkoako Junta Jeneralak urduri dabilta eta burnia obeto garbitzeko arau batzuek ematen ditu. Arau oieri ezkerak bai burnia eta bai galtzairua garbiagoa eta ohea ateratzen da gure oletik. Alaz ere, Suezia'ko burnia aurrera dijoa Europa guztian eta gure Peninsulan ere sartu da.

Cadizko portuan suekoak beuren burnia 70 errealean kintala saltzen dute; gureak, berriz, kostatako prezioan salduta ere, 80 erreal baiño gutxiago kobratu eziñ.

1700'an Gipuzkoa eta Bizkaiak Elgoibarko Junta Jeneraletan alkar artzen dute eta erabaki au artu: dirudunen artean elkarte bat sortu burni eta galtzairuak Arabako ingumarietan gordetzeko, andik Gaztelanian zuzenean sart aal izateko. Durango, Abadiano, Billaro, Balmaseda, Zegama, Bergara eta Oiñatiko errietan almagazak jaso zituzten... Baiña, dana alperrik eta 1750'an Zuezia'ko burniak nagusituta dabilta eta 50.000 tonelada sartzen dira urteoro merkatuetan. Ori asko ez dala, Errusiatik, Eskoziatik eta Inghlaterratik ere agertzen dira burniak eta galtzairuak.

Suezia'ko era Errusiakoak izan ziran gure burnien ondamentia.

Arrazoiak?

Mota auetakoak erabili oi dira gauza garbitzeko: Suezia'k meatzak obeak eta ugarriagoak, bertako basoak aundiago eta ikatsa ateratzeko errezagoak, oleentzako ur geiago eta gardenagoak, kargak eramateko zelai-izoztua errezagoa eta abar.

Gure iritzirako oiek ez dira benetako arrazoiak. XV eta XVI'an bentaja oiek danak ba zituzten; baiña, gure oletan bezela aiek ere baserriar ez jakiñekin lan egiten zuten. Galtzairua egiteko teknika Suezian aldatu zanean, orduan gallendu ziran eta geureak baztertuta utzi. Bitartean, ez.

1783'an Fausto Elhuyart, "Amigos del País" alkartearen izenean, Somorrostro ikusi ondoren onela zion: meatzak ateratzeko xistema atzeratua darabille eta lana kondizio eskasetan egiten da berian. Orra muestrarako ale bat.

Beste bat? Ona. Mondragoeko galtzairua, "vencedora espada de Mondragón tu acero y en Toledo templada", leendik zana, gero 1744'an Dowling jaunak zionez ez zan "hierro agro e indómito" besterik.

Orra gure burnien arrazoi benetakoa.

\*\*\*

Modak ere, askotan, izaten du zer-ikusi. Garai batean mundu guztiak eramaten bere ezpata ederra; gerora, berriz, Borbondarrak beste moda bat ekarri zuten Espainiara, ezpata sendoen ordeaz, ezpatatxo fiñak.

Gauzak orrela galbidean ikusita, erremedioa jarri nai eta Peninsulako merkatua irabazi nai berriro. Orretarako, meatzak etzetik kanpora bialtzea debekatu, eta, batez ere, Sueziaiko burniari eragozpenak ipiñi (Carlos III, 1775).

Une larri orretan Real Compañía Guipuzcoana de Caracas de Indias elkarteak ekarri zigun arnasa apur bat. 1727'an Donostiarrak sortua, Errege Felipe V tarteko zala, urrengo urtean Reales Fábricas zeritzenak bere mende artu zitun eta armak saldu zitun Ameriketan. Elkarte orrek egiten zitun eskabideak zirala-ta, kutxillo fabrika berria sortu zuten Bergaran.

Real Compañía orrek ontzi-sailla zitun bereak eta Venezuelako kostaldea urez eta legorrez zaintzeko eginbearra artu zuan beregain. Ordurarte holandesak ziran ango merkatuan jabeak; eta bekaitza eta gorrotoa erakutzi zuten itzez eta egitez Real Compañía'ren kaltean. Gipuzkoarrak ez zuten etsi, ezta mutil gazteak Venezuela'ra joateari ere.

\*\*\*

Holandesak alde aietan beti aurka; gero emen, inbidia galanta. 1778'an, 50 urte betetzean, Madridetik merkataritzari buruz emandako aginduak deseginzuan Real Compañía.

Arren ordez, "Compañía de Filipinas" sortu zuten emen; baiña, bi urteen buruan, erregearen dekretoz, galdu zan au ere.

\*\*\*

Burnigintzaren arnasa berriak 50 urte iraun zuan, Real Compañía bera bezela.

## **BIDEAK**

Oso eskasak ziran bideak gure artean. Bide zabalik ez, eta zauden apurrak zuloz beteak. Bizkaitar Gaztelaniarako irteerak iru ziran: Mena'ko balarra, Orduña eta Urkiola. Gaztelaniako zabalgunera igotzea lan gaiztoa zan eta artarako ausardia bear.

Astorgatik Burdeos'era zijoan biderik, zabalik beintzat, ez zan ez Gipuzkoatik, ez Bizkaiatik pasatzen.

Bilbotik Zaragozarako bidea ez zan Burgosera luzatzen.

Gaztelaniara joateko burdi-bideak eta mando-bideak erabilli bear. Zabalik, ez. Idiak eta mandoak, itzaiek eta mandozaiek kargak eramateko: "arrieros, trajinantes, mulateros, acemileros, aventureros y bueyerizos" ziran bide oiek egiten zituztenek.

\*\*\*

Andoindarrak, zati on bat, karreoan itzai ibilli oi ziran Donosti eta Tolosa bitartean. Idiak ziran indar-iturri. Orduan bezela, automobillak sortu diran arteko guztian. Santa Mariako kanpai aundia, bera osatzen zuten zati guztiekin, danetara 3.327 libra, bost idi-parekin ekarri zuten Luzaide'tik (Valcarlos) Iruña'ra.

Lan oietarako bear-bearrezkoak ziran kamiñu-ertzeko bentak.

Toki egokietan jarriak, aldapa gaiñetan eta toki lekaroetan, eurak ziran ibillaldietan geltoki. Ondo zainduak bear zuten izan. Aberatsa ez zanak ez zuan benta irikitzeko baimenik lortuko Oiñatin: 20 bei aundi, 10 txiki, 120 ardi eta 10 txerri eduki bear guxtienez. Gaiñera bear ziran ogi, ardo beltz, sagardo, ozpiñ, gazta, urdai, baratzuri, tipula, gatz, lasto, garagarra, olo (garizuman olio eta sardiñak), sei leiarrezko ardo-ontzi eta iru oge.

\*\*\*

Gipuzkoako leendabiziko kotxe-bidea San Adrian'go atekoa, Aizgorrin, izan zan, 1737'an Elgoibarko Junteetan erabakia. Mondragoeko Juntek 1755'an artu zuten asmoa Kanpanzarkoa irikitzeko. Urola ballarakoa Zumaiatik Urrestillako Arrastiolaraiño eldu zan.

XVIII'an iriki zituzten Gaztelaniarako bideak, Gipuzkoak Arlabandik eta Bizkaiak Orduñatik: kotxe-bideak, alegia.

Bide oiek egin zituzten burnigintza baztartuta gelditu zan une berean. Astoa ilda, garagarra buztanetik.

## ITXAS-LAPURRAK

Itxasoa zabala da eta bere bideak edonoraiño luzatzen eta zabaltzen dira. Euskaldunak itxaso guztietatik zebiltzan, eta guzti oietan egin zute topo itxas-lapurrekin.

Eurak ere ez ziran makalak gertatu.

Bizkai-kolkoan ugaritu ziran batez ere.

Hendaiak izan zuan itxas-lapur sonatua, Pelot kapitana; menpekoak zitun italiar eta grekutar lapurrak ere.

Urrugne, Doniane Loitzun eta Baionak ere izan zituzten bereak eta bost.

Baionako "Muelle de los Corsarios"tik atera ziran egun berean 30 barku 5.000 gizonekin itxas-lapurretara.

\*\*\*

Gipuzkoa eta Bizkaiak beste orrenbeste egin zuten. Ondarrabiko Udaletxean ematen zuten itxas-lapurretarako agiria, "patente de corso"; baita ere eurak erabakitzen zuten arrapatutakoak eskubidez egiñak ziran ala ez.

Pedro de Berrotaran Ondarrabian bere agiria lortu ondoren, bere ontzi N.<sup>a</sup> S.<sup>a</sup> de Aranzazu'rekin Arcachon'era inguratu zanean, lau patetxe frantsez ondoratu zitun.

XIV'aren erdialdera, Inglaterarako Errege Eduardo III'k keixak zitun garratzak Ondarrabi, Donosti, Mutriku, Lekeitio, Bermeo eta Portugaleteko itxas-lapurrak ondasunetan eta personetan kalte aundiak egiten zituztelako.

\*\*\*

Ematen dunak artu egin bear. Martín Sánchez de Arbolantxa, euskalduna, Portugal aldean zebillen, genoves batzuek bere galeoia eta bale-ontzia ondoratu ziotenean. Mendoza da Arteaga eta bere emazteari karabela bat arrapatu zieten La Rochelleko kaiean.

1488'an, kapitan bretoiñ batek, 15 ontzi arrapatu zitun bituallaz beteak (80.000 korona balioa) Burgos, Gipuzkoa eta Bizkaiko merkatari batzuenak.

1470, Abenduak 24, mekatarari bizkaitar sail bateri lapurretak egiten diete Inglateran. On lapurtuen izenak: Domingo de Amezketa, lekeitiarrari, bere ontzi Santa Maria galeoiakin 66 ardo-upel; Esteban de Ribadeo, donostiarrari, Santiago ontziaren maixuari 40 Burdeosko ardo-upel; Juan R. de Larrauri, bermeotarrari 15 ardo-upel t'erdi... Eta abar.

\*\*\*

Gai oneri bukaera emateko gertakizun ikaragarri bat azalduko degu. Gertaera oke atzeratu zitun luzaroan Ingalterra eta Euskalerrriaren arteko artu-emanak. Ona emen gertakizunak Gorosabel'ek dakarrenez:

Urtea, 1476. Ingles merkatari batzuek oialez, urre-pitxiz eta beste merkagaiez on-


tzia beteta abiatu ziran Londres'etik Gipuzkoara. blenda gero, beste Inghaterrako portu batean geldi-unea egitean, barrura etorri zitzaizkien Miguel Nekola, oriotarra, Juan de Larrea, asteasutarra, beste izenik ez dakigun mutrikuar bat eta beste bizkaitar bat. Lau lagun. Gipuzkoarako eskabidea egin zuten, eta barruan ariu zituzten laurak. Bidean datoztela, ekaitz baten ondoren, nekeak artuta inglesak lo daudela, euskaldunek ezpataz eraill zituzten. Gorputzak itxasora bota ondoren, Galiziara jo zuten eta bertan saldu zituzten bai barku eta bai merkagai guztiak. Gorputz batzuek Bre-taiñako kostaldean agertu ziran eta orduan agertu zan euskaldunen okerra. Sasiola jaunak, Inghaterran enbajadore zegoena, arrapatu eta kartzelan sartu zitun; baiña, berak bear-añeko agintaritzarik ez zuelako libre utzi zituzten berriro. Hermandade-ko Alkateak kargu egin zan arazo orrekin eta gauzak ondo azteriuta, errudun aurkitu zitun eta eriotzaren zorpean jarri. Urkatu, bakarra urkatu zuten; besteak alde eginda zebiltzelako.

Andik sei urieera, 1482'an Inghaterra eta Gipuzkoaren artean Ituna egin zutenean, orduan paketu ziran bien arteko artu-emanak.

Iratzeder'en bersoekin bukaduko degu lantxo au:  
"..Txuti, Eskual-semeak  
Eskualdun teihorreko harrokak bezela".

### Arrinda Anes eta Donato

KRISALLU  
fanal -P''





301. Teología de la liberación ..... ASKATZE-JAINKOIZTIA
302. Los talleres han parado.  
 Los talleres han sido parados ..... LANTEGIAK GELDIARAZI EGIN DITUE  
 En los talleres no se ha trabajado ..... LANTEGIAK GELDITU EGIN DITUE
303. Estado de sitio ..... GERRATE-LEGEA
304. Tomar unas medidas ..... ZERBAIT EGIN, ZERBAIT ERABAKI,  
 ..... NOLABAIT ANTOLATU
305. Déjale en paz al perro ..... TXAKURRA PAKEAN UTZ EZAK
306. El señor alcalde se encuentra enfermo ..... ALKATE JAUNA GAIXORIK DAGO
307. El estudiante teme el examen ..... IKASLEA AZTERKETAREN BILDUR DA
308. Acupuntura ..... ORRATZ-ZIZTAKETA, OSATZE-ZIZTAKETA
309. Extintor de fuego ..... SU-ITZALGAILLUA, SU-ILGAILLUA
310. Asesor laboral ..... LANGIN-LEGEAZ AOLKARIA
311. El "gordo" (de la lotería) ..... (ZOZKETA) = SARI NAGUSIA
312. Ruta turístico-cultural ..... IKUSTE-IKASTE BIDATZAA
313. Acento (prosódico):  
 Agudo (acutus) ..... MINTZAGORA  
 Grave (gravis) ..... MINTZABERA  
 De intensidad (ictus) ..... MINTZAGORRA  
 Acento gráfico: agudo ..... GORA-IKURRA  
 Acento gráfico: grave ..... BERA-IKURRA  
 Acento gráfico: circunflejo, de intensidad o duración ..... LUZA-IKURRA
314. Inspecto de Hacienda foral ..... FORU-ZERGA-MIRALARIA
315. Leches: esterilizada, higienizada, homogenizada,  
 pasterizada ..... ESNE GABALDUA, OBETUA,  
 ..... GURINTXEATUA, KIMUGABETUA, EZIGETUA...
316. Cibernética ..... LEMATZEIZTIA
317. Asistencia social ..... GIZARTE-LAGUNTZA
318. Pacto de legislatura ..... LEGEGIÑ-ALDIRAKO ALKARR-ITZA,  
 ..... AUTESKUNDE-BITARTERAKO ALKARR-ITZA
319. Informática:  
 Teoría de la información ..... MEZUIZTIA  
 Elaboración de la información ..... MEZU-MAMIKETA  
 (Proceso de datos) ..... MEZU-MAMI-LANKETA
320. **Boletín** (Cédula, etc) ..... TXARTELA  
 (De una sociedad, academia, etc. .... MEZU-ORRIA  
 (Oficial) ..... JAURBIDEZKO MEZU-ORRIA  
 (Médico) ..... OSASUN-MEZUA  
 (Informativo de radio o televisión) ..... IRRATIZKO BERRITZAA  
 (Meteorológico) ..... GIROAZKO BERRIAK
321. Temperatura ..... BEROTASUNA
322. Campaña electoral  
 (la lucha misma) ..... AUTA-GUDUA  
 (época) ..... AUTA-GUDUTEA
323. **Actualidad:** tiempo actual ..... ORAIÑALDIA  
 Actualidad actual ..... ORAINGO

- Actualidad calidad de ser actual ..... ORAINGOTASUNA
324. Negociación: (Conversaciones para llegar a un acuerdo) ..... ITUNTZE-IZKETAK
325. Guardia municipal: (un) ..... URIZAIÑA = IRIZAIÑA  
Guardia municipal: (la) ..... URIZAINZAA, IRIZAINZAA
326. Real ..... IZATEDUNA  
Realidad ..... IZATEA
327. "Film". Película: Fotográfica ..... ARGAZKI-MINTZA  
"Film". Película: Cinematográfica ..... IDULMINTZA
328. Centro de la ciudad ..... URIGUNA, IRIGUNA
329. Pandeo ..... MAKURTZU  
Pandear ..... MAKURTEU
330. Cinematógrafo (Ingelesezko **movies** ..... IGIDURIAK  
Cinta de cine ..... IGI-ARGAZKIAK  
Dibujos animados ..... IGI-MARRAZKIAK
331. Desorden público ..... MATXINADA
332. Cero ..... UTS
333. Da un programa agradable ..... JARDUTALDI ATSEGIÑAK EGITEN DITU
334. Certificado. (Carta o paquete que tiene certificado de correos ..... AGERIDUNA
335. Carisma (en política) ..... GIDARI-DOAIA, BURUZAGI-DOAIA
336. Parque de atracciones ..... JOLASTE-ESPILLA, JOSTATZE-ESPILLA
337. Arena movediza ..... ONDAR IGESKORRA  
Arena que lleva el viento ..... ONDARR EGAKORRA  
Arena que mana con el agua ..... ONDARR IÑOSKORRA
338. Alijo de armas ..... IXILPEKO IZKILLU-LORRA
339. Cobro de letra ..... ORDAINTZE-TXARTELAREN DIRU-JASOTZEA
340. (to) play off: desempatar ..... AUNTZA JOKATU  
desempate ..... AUNTZA
341. Metro cuadrado ..... METRO BIKONDEA  
Metro cúbico ..... METRO IRUKONDEA
342. Concierto de la banda del Conservatorio ..... SOIÑULARI-IKASTEGIKO TALDEAREN JOTZEALDIA
343. Ha cumplido veintiu años ..... OGEITABIGARREN URTEAN SARTU DA
344. Masa específica ..... GAI-AZTUNTASUNA
345. Diferencial (incremento infinitamente pequeño) ..... APURRA  
Diferencial derivada (Diferencial de la función dividida por la diferencial de la variable independiente) ..... APUR-NEURRIA
346. Ha repartido un dividendo de cien pesetas ..... EUN PEZETAKO ZATI-MOZKIÑA BANATU DU  
Certificado de acciones ..... JABE-ZATI AGERIA  
Cupón (de dividendo) ..... ZATI-MOZKIN TXARTELA  
Accionista ..... ZATI-JABEA
347. Agua de Colonia ..... KOLONI'KO URA
348. Sector(circular) ..... OBO-ZIRIA  
(esférico) ..... BOLA-KERRUA  
(cuña esférica) ..... BOLA-ZIRIA  
(área o territorio) ..... SAILLA, ARLOA, TXANTOA, ZATIA  
(settore italiano persona que prepara los cadáveres para lecciones de anatomía ..... GORPUTZ-GERTULARIA
349. Integración. (Cálculo integral) ..... APUR-BILKETA. (APURBILTZEIZTIA)
350. Bolsín de trabajo ..... LANBIDE-ARTEKARITZA

# UTSAK...AKATSAK...OKERRAK...

Pisu soila (peso neto)  
Superior kafea (Café superior)  
Natur Txigordura (Tueste natural)  
Osasun erregistroa (Registro de sanidad)

("Casa del Cafe"ren zorroetan)

Kurtsoak martxan daude (Los cursos de... están en marcha) EITB  
Direla motibo EITB  
Funtziotako erretorea (Rector en funciones) EITB  
Leonak izan direla (Ala oraingoak ote?) EITB  
Dispersatu...bart allegatu...arremam diplomatikoak EITB  
Normaltasunera bueltatzen ari direla EITB  
Desagertuta daude. EITB  
Eusko Jaurlaritzak premiazko billera egingo du. EITB  
Joango Ayala plaza = Plaza de *Juan* de Ayala.

(Gazteiz'en izen bereko enparantzan)

Behineko irteera = Salida provisional (Ikaztegieta'n, bide zabal berriaren bukaeran)  
Emakumearen egun internazionala. Amatasuna eta berrehintza, teknologi berriak.  
(La maternidad y las nuevas tecnologías de reproducción)

100 produktu prezio eskandalosotan. (100 productos a precios de escándalo) Eroski.

Azpi-txapeldun. (Subcampeón)

Eguraldiak emango digu arrazoi. (El tiempo nos dará la razón) (Zanussi'ren iragarrietan)

Hornitegia = Estación de servicio. Itziar'ko autopistan

Aurkako norazera = Margen opuesta. Itziar'ko autopistan

Urdai-azpikoa = Debajo de tocino

Errepide itxita (Zarautz'tik Meagas'ko bide gurutzean

Bokauak gertatzen dira = Se preparan bocadillos. (Ondarroa'ko bar baten)

Ikasle aktiboek (Bilboko udala)

La Galera eraikina (Edificio La Calera) (Bilboko Udala)

Kontzertu kanta bat interpretatu. (Interpretar una canción de concierto) Bilboko Udala.

Akanpatuta zeuden eta erreskatatu bear. EITB

**Habitazioa** individuala alquilazen dut de 8 a 1 goizetik. ("El Diario Vasco"n)



Propositu enmiendazkoa. (Egunkari baten)  
Polizien mandoak komisarian enzerratu dira... (Irrati baten).  
Insubordinazioa, Ze Ostia! (Soldadutzaren aurkako agiri baten).

## MUNITIBAR'KO UDALA



Kultura saila

**HUNITIBZ RKO UDJTL2**

IBIZKAIM

Herriko mediku jaunari eskutitz hau zuzendu dagion  
Udal honek.

Medikuak ba du, herritarren artean, bere imagina soziala.  
Ez da edozein; medikuntza ez da edozein ofizio. Medikuek ezin  
du egon herri bateko bizitza kulturaletik gpartaturik.  
Uerrikoen hizkuntza jakin behar du; ez bakarrik elkarriketa  
informatibotarako. Baita ere, hurreratze psikologiko eta  
afektiborako.

Munitibarko Udalak -eta batez ere udaleko kultur sailak,  
espezifikoki- gogo onez ikusiko luke, mediku jauna, euskaraz  
ikasten hasiko balitz, Ikasten hasita balego, zoriontzen du  
eta aurrera segitzeko animoak ematen dizkio. Ezertariko  
laguntzarik behar balu, euskara ikasteko, Udala prest dago  
bere esku legokena eskaintzeko.

Gainera, kontutan hartzekoa da, euskara kulto bat ikastera  
helduko balitz hobe litzatekela; profesioari eta status sozialari  
doakonez.

Guzti hau jakin eragiten zaio, uste izanez, herritar guztien  
eta gaixoen onerako izango delakoan. Baita ere, mediku jaunaren  
onerako.

Eskutitz hau pertsonala ez denez, bidali egiten dugu baita ere  
Bizkaiko Medikuen Kolegiora eta Euskal Gobernuko Osasun sailera.

Munitibar, 1.984 maiatzaren 1án,

**Taldean**



# "ORIXE" OREXA'N OMENDUA (1888-1988)

Ederra egiz inoren naia egitea, bai gogoz eta bai gogo ezik. Or nire jokabidea. Oraintsu, "Orixe"-ren omenez Iruña'n itzaldi bat egin ondoren, onuntz gentozala, Mugiro gainez, ni lagundu nindun Xabier Azurmendi'k, abenduaren 6'an aita Lino ta biok, Oresa'n egoteko eskatu eustan. Nik, ba, ezin itxi eskarí ori egí biu rtu barik.

Eta esandako egun orretan, Oresa'n jaí apartekoa ospatzen zala-ta, arako bidea artu genduan, naikoa goizetik. Aurreko egunean iragarri neutson Akesolo'ri neukan asmoa: Goiz samar etorri zeitela Begoña'tik Zomotza'ra, eta emendik berebillez Lemoa'n bizi diran Demetrio Aierbe ta Libe Ortuzar, andra-gizonak eroango gindue-zala Oresa'ra. Otera egokia zala neritxon.

Naiz-ta zeozer belu, Durango, Elorrío, Bergara, Zumarraga, Beasain ta Tolosa zear, emen Iruña'rako bideari ekin, Lizartza'n ezkerretik artu ta Oresa'n gengoan amaika-amaiketan; eleiz-aurreko zurubiz gora giñoiazala, torreko kanpaia otsean eta mezea sartzen; eta gu, lotsor, altarako mezatan parte artzeko asmoz joan giñan arren, enparau eliztarren artean geratu gintzazan. Eta meza ostean, guk be altaran Setien gotzain eta beste amaika apaizakaz batera parte artzea nai eban J. M. Aranalde'k, bota eustan: "Mezea sartuta egonagaitik, zelan etzarie altarara etorri?" Nik erantzun: "Lotsa giñan". Arek guri: "Leen uste neban nik prailleak ez ebela lotsarik ezagutzen, baiña ba-dakust orain lotsor dirana". Praille ta apaizok, beraz, ba-daki mezea asirik egon arren, jo aurrera.

Oresa erriak, "Orixe" bertako seme kutunari, onen jaiotzaren mende-urrenez, eleiz-opari biotzia eskiñi eutson abenduaren 6'an. Eleiz dotore apaiña. argiz ta lorez kuin-kuin, Euskalerrri osotik ara eldutakoz beterik; kanpoan otz, barruan arimen biotz-sua; altaran Setien gotzaiña, amaika apaiz eta praillek koroi egiñik, euron artean J. M. Aranalde, "Orixe"-ren loba, Aita Mauro beneditarra, J. M. Lekuona, Uitziko txauburua, eta gaiñerakoak. Altarakoak eta Donostia'ko "Aitor" ikastolako neska-mutillak, ederto abestu zituen mezako kantuak, ots, "Goazen elkarturik", "Aintza, Zuri", "Sinisten dut, Jauna", "Santu, Santu", "Pakearen abestia", "Eskerrik asko, Jauna", eta beste au:

"Zatozkida, goi-arnasa;  
eizu nerekin lan,  
Erri baten amasa  
mamítu dezadan.

Geroak esan beza:  
"Erri bat izan zan",  
edo-ta ats emaiogun  
ontan íraun dezan".

Gazte ta zar guztiok eme. Gotzain jaunak, irakurgai ta ebanjelio ostean, "Orixe" goratu eban bere omilian, aren irudi prestua gogoratuz eta aren liburu bikaiñak

("Meza-bezperak", "Salmuak", "Jainkoaren billa" ta "Bame-muinetan") eredutzat jarritz; aren fedea, aren erri-maitasuna ta Jainkoagana beroa etziran kaskarrak.

Biotz-zirrara egin eben baita jentearen artean, eskintza asikeran erritarrak altarera eroan ebazan opari berezi-berezia: ogi-barazki ta bar, otzara polit batean, idazle-luma ta "Euskaldunak". Mezeari betetasuna emotearren, eta "Orixe"-k bizi-bizi opa izaten eban lez, bost apaizek emonda Jaunartze ixil-beroa, ainbeste kantuz gozatu-ta.

Jainkoari ta "Orixe"-ri eskiñitako gogo-opari au amaitutakoan, kantu saioa barriro be. Alkar agurtze ta txerak, esku-muiñak, bizkar zaplada maitekorrak, eta, zelan ez? eleiz-osteko kanposantuan, Polloe'tik oraintsu aldaturiko "Orixe"-n azurrak gaur datzan illobia ikuskatzea. Onetan ziardugula, inguruko laño baltzak pillotu ta euri-zaparrada galanta gaiñ etorri jakun; eta zerbaít oízko ez dana jazoten danean, oraingoan lez, baktzak adierazo oi dau bere eritxia, baita aztruetan fede gítxi dabenak be. Dana dala, "Orixe"-ren illobi aldatu aren egon giñanok, andik alde egitean, onako zerbaít erabilli genduan gogoan eta miñean: "Zer da au?" "Zergaitik ain zaparrada gordiña?" "Kezkaz ete dago "Orixe"?" "Ez al dabiltz ondo arekin?" Jonas eroian ontzia gogoratuz, "nor ete dogu pekatari?" Alamentu onek jota baztertu giñan andik.

Gero, euri-ixuria pízkat eztitu zala, eleizea, udaletxea ta "Orixe"-ren jaiot-etxea bertan dirala, leku agiri ta aukerakoan —geroago, jakiña, mota askotako lora pitxiz apaintzeko danean—, txistularien soiñu zoliz eta jentez beteago ezifiñ, amabi'k "Orixe"-ri eskiñi eutson oroigailu ederra. Oresa ta Uitz bitartean aurkitzen dan Espuru, "Orixe"-k sarri aitatura begira dago.

Ortara orduko bertako alkateak itzaldi labur bat irakurri euskun, "Orixe" ta beronen lana goretsi ta txalotuz; emen zan entzule Oresa osoa, Uitzirekin; emen Setien gotzaiña, praille ta abadeakaz; emen Gasteiz-ko kultur-agintariak —Joseba Arregi, Imanol Muruaz, Iñaki Zarragoa, Mari Karmen Garmendia, Jose Luis Telleria ta abar.

Azkenez dantzarien ekitaldi ikusgarria Udaletxe aurreko plazan. Aterri zan eta bazkal aurretik, Oresa'k ditu gaiñ-berako edertasunez jabetu nairik, an-or gu ibiltari, eta omena ezpan-ertz. "Orixe" lango olerkari batentzat sekulako lekua dozu Oresa, mendi-kukutz zorrotzez, troka barren jas aundikoz, etxe zuriz, solo irripaz, erroi, bela ta arranoz omidua. Emengoxe semea noski, emengoxe izakeradun, emengoxe olerkari... Nun jao ta zelako giroak eta lurraldeak azitzen lagundu, alako izan oi gara geienik. Ez bizi marmarka "Orixe"-gaitik; bere lurak emona dogu.

Gu ikusmin eta jakinguraz gora ta beera genbiltzala, bertokoai itaunka: "Emengoa gendun "Orixe", gizaseme errimea". Eta areik erantzun. "Bai, alaxe da; guk alere ez genion kasu andirik egiten. Zarpail bezala jantzirik genun ikusten; elizkoi oso. Eta orrela ikustean, "Or gizontxo" esan oi genun".

Areik ez ekien, gizon aundiak geienez apal-lauak izan oi dirana. Ez daukate astirik dotore jantzita ibilteko, ez jateko, ez itz egiteko, momentu batzuetan ixil-pentsakor ibilteko izan ezik. Irakurri, idatzi, aztertu, ausnartu: liburuak dira bizia iruntsi egiten dautsenak. Eder jakez mendí-bizkartxoak, errekondoan, zuzagño ta laño arteak, euri erauntsiak. Atsegin jakon "Orixe"-ri, ementxe munduratu ez bakarrik, ainbat euskal lan osotu be bai; "Orixe"-k maite eban bere erria.

Ordu bi t'erbietan, bazkaria plaza ondoko errebota barrian. Zenbat ete giñan? Aundi ta txiki, ni zenbaketan ibilli ez nintzan arren, mila ta bosteun bat, or-or, esan zanez. Jateko ugari beroa; bitartean, burrunbada ta abarrots ederra zerion frontoi lepoko sapai itxituan. Baiña ez geuntson jaramon esatekorik egiten, aurrekoaren arduraz.

Politto luzatu gendun jataldia. Erabat esaleak, kantariak eta bertsolariak egin eban eurenak, bata-bestearen leian eta aspertzeko itxura barik. Jose Agirre ta Txomin Garmendia bertsolariak gustora ta abazuri barik laiatu ziran, J. M. Aranalde'k ipiñitako gaia. Garmendia'k ziri ta Agirre'k ziri makiñatxo bat bertso bikain ondu zituen bazkaldarren atsegingarri: gaia, izan be, etzan motela: Garmendia, Berrobi'ko alka-

tea, luzaro mutil zar egona ta oraintsu ezkondua. Polito astin-azo eben berandu ta neskatz gazte lirain batekin alkartua.

Oraindik bere, gauzeari azken-txapela ezin jarririk, Aitor saillaren kantu eresitsu, txistularien soñu ozenak eta dantzarien oin-zaparrada ondoren, azkena emon jakon jaaiari. Seirak eta ogei ziran erriko erlojuan. Agur, beraz, Orexa ta agur "Orixe"-ren Tabor mendi, laiño arrez beteari.

**Aita Onaindia**

### **NERETZAT OTE AIZ?**

Begiak ezetz, biotzak baietz,  
zein izango den nagusi?  
Biotzarentzat eder aizena  
bi begientzat itsusi.

Begiak baiño zurrangoan den  
begirik ez dun biotza:  
biotza su den, baiño begiek  
gaiñean diten izotza.

**"ORIXE"**

### **IRE ITZA**

Salatur pillak berritzen ditun  
aize gorria sortzean,  
nere begiak erneko ditun  
ire itza entzutean.

Il-lau-ikatzta gorri ipintzen din  
arnasarik legunenak:  
aurpegi illun au kenduko liken  
ire itzik laburrenak.

Erruki dezan aurpegi il otz au  
itz arin-arin batekin;  
orduan noski argituko den  
ire itz biguñarekin.

**"ORIXE"**

# ERI-YAKINTZA

## AZPEITIA 'TAR JULENE

### "ARRITOKIETA"

Azpeitia-tar Julene'ri buruzko zeaztasunak San Martin'en Escritores Vascos, A. Onaindia'ren EUSKAL LITERATURA V'an, ta, agiri danez, maistra umezale ta maistra euskaldun jatorra izanik ipuiñak eta abar idatzi zituan **Amandriaren Altzoan** eta ZUENTZAT izenburuturiko idazti jakingarrietan daurkikeguz ipuin ta edesgai ederak.

Irakasle. Zumaia'n jaio zan Julene, 1888-1-8'an. Lenengo maillako Irakaskintzako maixtra, Donostia'n eta Bilbao'n ikasirik. Lenengo Bilbao'n erakutsi zuen, eta gero Abadiño'n eta Astorki Etxebarri jaunen etxean, Bilbao'n eta Zumaia'n. 1911'an Valladolid' egiñikako nor geiagotan lenengo zenbakia atera zuen, ondoren maistratza Bizkai'ko erri politean egiñik. Oso maite zuan Ea'ko erriak euzko emakume, Euzkal irakasle jator au. 1916'an Eskauritza'tar Endikarekin ezkondu zan, Mexiko'ra joanik; antxe asi zan euskeraz idazten eta "Arritokieta" bere izenordea erabilten: ango Euzko Batzokiak Iñaki Deunaren omenez ospatu zuen. 1920'an, Euskalerrri'ra dator berriro, eta Bizkai'ko Aldundiak bere Auzo-ikastoletarako iragarri zuen norgeiagoe-tan berau geratu zan aurrenen eta Ikastola oietako maistra guztien Buru izendatu zuten. Urrengo urtean, kargu ori utzi ta Zornotzako San Migel auzunean erakutsi zigun; gero berri, 1936'ra rte, Abadiño'ko Mendiola'n eta Matiena'n beste ainbeste. Irakasle arloan zintzoa izan zaigu beti, egiazko emakume bati dagokionez. Ona Julene Albizuri, Axpeko alaba eta irakasle aspergaitz izanak diñoskuna ZUENTZAT idaztiaren ITZAURREAN.

"U rte asko dira Azpeitia'tar Julene irakaslea ezagutzen dodala. Abadiño'n zortzi urtetan. Matiena'ko Bizkai-Auzo-ikastoletan, biok izan giñan irakasle. Zo rtzi urte aiek nere gogoan utzi eben oroipena ikastolatza, umeatzaz eta irakasleatzaz, ez zait iñoiz gutxitu. Liburu onetako "Poussy gaxoa" irakurri nebanian, Matiena'ko ikastolan nengoala uste izan neban, ango neskatxo mutikoen artean, gerrate-aurreko denboretan.

Azpeitia andreari maitasun aundi bi aurkitu dizkiot beti biotzean: bere gurasoen Euskal-Erria, erri onen izkuntzaz, (Beti Ama Euzkera esateko oitura du) eta Euskal Erriko umeak, mutikoak batez be. Mutikoentzat aparteko era dau erakusteko, asiera ona biotzetan ereiteko, eta sentimentu onak euren gogoetan esnatzeko.

Idazti Deun'eko Jose'ren edesti ukigarria eurai azaltzean ikusi dodaz amaika urieko mutikoak negarra begi-ertzean dabiela.

Umeak zenbat maite dauzan liburu onetako lenengo lantxoan eta beste askotan ikusten da. Euskal-Erriari dautzan maitasuna berriz "Eguneroko Arrateko Amaren irratian... izendunean, eta Ama Euskera biotzean zein sakon sa rtua daukan, ikusi gentzake bere alde egin dauzan lanetatik, geien-geienak diru ordain gabe.

Gerratea baño len "Kirikiño Saria" irabazi eban. Ama Euskera'ren alde eskatu

deutzezan lan danak egin ditu. Gerrate aurretik asteoro idazten eban euskeldun umeen alde. Ume-izti edo Pedagogia gaiak erabilirik "Arritokieta" izenpetuta.

Eta gerratea amaituta "Karmel" aldizkarian, izenorde beragaz, Loiola'ko irratian, Arrate'koan, eta Euskaltzaindiak eskatu dizkion lanetan. Donostia'ko Centro de Atracción y Turismo'k saritutako irakurgai bat ere bai du "Odolak odolari dei" izenduna eta Euskaltzaindiak saritutako bi ere bai "Osasuna, merketza ta janaritzea", eta "Amandrearen altzoan" bestea, eta Paris'eko Euskal-Kulturaren alde'k saritutako irakurgai bat ere bai "Goizeko Izarra" izenduna. Euskerearen alde lana egiten nekazten ez dan emakumea da Julene Azpeitia.

Ikastolan lan aundia egiten eban umeei bi gauza buru-biotzetan sartzeko; biargiñak eta zintzoak ba-ziran, munduan defendituko zireala esaten eutzen.

Caceres'ko Caja de Previsión Extremeña'k sortutako sari bat irabazi eban "Leción práctica a los niños sobre las virtudes y excelencias del Ahorro" izendun lanagaitik eta Bizkai'ko Aurrezki Kutxak sortutako sariketa baten, Matiena ikastolan zalari, irabazi eban lenengo saria "Instituciones pre y postescolares que pudieran crearse alrededor de las escuelas de Barriada de Vizcaya" lan ederrakaz.

Orañ askotan esan deust, bere ikastoletako umeak, pamily beartsuetan jaiok, gizartean bi edo iru malla gorago bizi dirala ikusteak poz aundia ematen diola, berak ere, bere erakutsien bitartez, gorakada orretan zer ikusia badabela uste dualako.

Gaiak, erak eta luze-zabal-sakontasunak umeentzat neurtuta dagoz. Lan danak dira astunkeri gabeak, eta gai bat edo beste, naiz gaia azaltzeko era umeentzat aiñ ariñak ez dirala iruditu ezker, irakasleak ipiñiko dauz umeen adimenen neurrian.

Nere ustez euskaldun umeei euskeraz irakurtzeko zaletasuna sortzeko liburu berarizkoa da. Eta onen ondoren datorrena ere bai.

Biak dituzte dibujo ederrak, Eibar'ko Julen Zabaletak egiñak, eta zuzenezkoa da au emen esatea umeentzat egiten diran liburuetan irakurgaiak bezin garrantzi aundia dibujoak dutelako.

Azpeitia'tar Julene irakasleak egin daben lan au, geure Ama Euskera-ren onerako izan daitela, geure gurasoengandik artu genduan izkera maitagarri oni euskaldun danok deutzagun zorra ordaintzeko, eta euskaldun idazle eta irakurleak geitu daitetzan.

Nik beintzat pozik ipiñi dot neure ondar-alea, itzaurre au biotz-biotzez idatziaz.

#### Axpe 8-9-96

Juliana de Albizuri y Goxencia de Armendariz Ikusten dogunez Julene gipuzkoar emakume irakasle jator au biotzez geure-geurea dogu, Bizkaia'ri ainbeste mezedo egindako! Zumaia'n jaiok ta Bilbo'n illa. Goiz Argi'k (1980'gko otsaillak 16) onela idazten eban: "Azpeitia'tar Julene, bere bizi guztian irakasten ari izan dan maistra, Zumaia'n jaiok ta Bilbo'n illa 92 urte aundi munduan eginda. Asko idatzi zuan euskeraz, umeentzako ipuin ta irakurgaiak batez ere. "Amandrearen altzoan" liburuak, 1961'an agertuak, eun ipuin ditu. Geroago 1974'an "DONOSTI AURREZKI-KUTXAK" "ZUENTZAT" atera zuan, umeentzako liburu apaña; ume-zale ta ezitzaile izaki Julene zana. G.B. Euskalerrriak badu zorrik euskal-idazle orrekin.

Euskal idazleak zirikatu eta sututzeagaitik "Euskaltzaleak" bazkunak nai izan zuan —Zumarraga'n 1927 garren urtean ospatu zuan Euskal-Egunean, saritok bat urteoro eskeiñi, urteburuan edozein egunkari edo aldizkingietan, ager zeiken idazlan bikaiñenari. Saritok orren izena "Kirikiño" euskal idazle trebarena izango zan.

1929 garren urteko "Kirikiño" saria irabazi zuan idazlana IRULEAK izan zan ta bere egillea Ormaetxea'tar Nikola yauna.

1930 garren urteko saria irabazi zuan idazlana EMAKUME EUSKOTARA ta, bere egillea Eguzkitza'tar Yon U. yauna.

1931 garrengo urtean irabazle Agi e'tar Toma (Ba ensoro) izan zan ta idazlanaren izena: AMAIKA NEKEREN SEMEA DEK OGIA.

1932 garren urtean Agife'tar Yoseba Mirena (Lizardi'Yoseba Mirena yauna) izan zan irabaztun bere ETXE BARNE BIZIA'z.

Ta 1933 garren urtean, Azpeítia'tar Julene andrea (Afí-tokieta) EUSKOTAR UMEEN ALDEZ. EULI BATEN EDESTIA. (EULIAK BERAK EDESTUTA). Bost lanok dítuzu irakurle zeín baiño bíkain ta eder ta benetan jakingarríak. Ondoren datorren lana dozube Azpeitia'tar Julene'rena.

## EULI BATEN EDESTIA

"Ofillean erailtzen dan euliak bagillean bi anei gutxitu". Gaztelar esaera.

Iñork ikusiko ez zuan arrautza txiki-txiki bat nintzan ni lenengoz. Okoillu bateko zikinkerien gaiñean ipiñi ninduan nere amak beste arrautza askorekin batean.

Egun batzuek gerotxoago erten nintzan arrautzatik.

Aar zurí, txíki-txíki bat nintzan orduan.

Aste betean, neu nengoan zikinkeria yanda bizi izan nintzan. ¡Yaiotzean yanari ugaría ta ona euki nezan arduratu bai zan nere ama! --

uan da yan, azi ta azi, ordU gutxiren barruan erten zidaten egoak eta eulia izatera eldu nintzan.

Geroztík yoan etorri aundiak egín ditut. ¡Eta nik egin ditudan lanak eta eraman-ekarriak!

Zuek ikusi ez arren, anketan ¡lle me-meak ditut, eta ¡lle oiekaz edozeín gaitzen aziak batu ta eramaten ditut. Egoetan eraman nezake gaitza.

Zuek ez dezute síñistuko. Ez ba, txikia baj-naiz! baiña nere gaiñean 6.000.000 azi eraman neizke.

Zer azi mueta?

Gáitz gutzién azjak, naparreríenak, birjketako gáitzenak, gorníenak, tipuzenak eta abar.

Udan ume asko gaixotu ta ¡ltzen dituan gáitz baten azia ere beti neurekin erabilí o¡ det, eta umea lo dagoanean bere ezpain eta sudurrean ibilketak egiten ditut, baita umeak aoan erabiltzen duan txupetean, nai aiña mikrobio utziaz.

Zikinkeri guztietan ibiltzea da neure atsegiñik aundiena. ilikinkerien gaiñean yaioa naiz ba!

Ez naiz ordea z¡k¡nker¡etan bakarrik ibiltzen. Baita ere okela, arrái, gaztae, esneo-pill, eta onelako gauza gozoetan.

Zenbait zartxoa naiz, ez naiz ba aurten yaioa, igaz baizik; negu osoa sukaldeko epeletan igaro dedalako nago bizirik.

Nere aurretikoen berririk ez det, baiña yakintsu batek diona egia bada, uda batean 6.000.000 ondorengo utzi neizke. Ez dago beraz gure abenda amaituko dan bildurrik, neguan bat edo beste gelditzen ba'gera. Lurraren gañetik gure abenda kendu na; ba'dezute, guk arrautzak ipintzen ditugun lekuak, okoilluak, zakar-píll oak egoten diran bazterrak arrandegiak eta abar garbi euki, zikinkeri guztiak erre, ta kare bizia bota ugarí: Kare biziak iltzen baj ditu ba gure arrautzak!

Baiña, etxeko andre batzuek oso maite gaituzte. ¡Maite ez ba'ginduzkete, ez lituzkie eulik... zikindutako gauzik dendetan erosiko!

Gaur goizean bildur ikaragarria igaroa naiz. Esnetan ¡a-¡a ito nintzan, II-bear dedala etsita nagoalarik etorri da etxekoandrea ta poliki-poliki atera nau. Gero, nik ainbeste m¡krobío utzitako esneaz eman dío bíberoia bere umetxoari.

Umea gaixotzen ba'da ez du ama arek asko usteko zeíñek gaixotu dion bere biotzeko umetxo kutuna. Típutza etortzen ba'zaio, —Ene, gu ez gera ba tiputzík dagoan etxean izan"— esango du.

Nik erantzun nezaioke —Baiña esnera erori baiño len, tipusdun gaixo baten ogearen azpian zegoan ontzi berarizkoan ibillita nengoan ordea. Lengo uda baten, washington urian iiguri egin ziguten guda gogorra!! Leku guztietan gu arrapatzeko sareak zeuden. Lan gabe zeuden langille guztiak saregiñen ipiñi zituzten. Izpar-ingi

batek 75.000 sare eman zituan. Eta, txadon, etxe, arrandegi, arategi, denda, bultzi, tximist-burdi, txaide, enparantza ta leku guztietan, dana zan gu arrapatzeko sarea.

Gure azkena orduantxe izango zan, baldin an bezela beste leku guztietan, guda egin ba'ziguten.

Baiña ibai zera!

Gaur baiño naska aundiagorik artzen ez ba'digute. ¡Gizaldi batzuetarako ba'gera!

Olakoxea zan gure Arritokieta, Azpeitia'tar Julene.

Emakume zintzo, egi-zale, abertzalea! Benetan aintzagarria!

Lan jakingarri ta eredugarriak idatzi ebazan maistra argia. Ez bakarrik eskola umentzat baita adiñekoentzat ere egokiak. Benetan ipuinlari ona. Erreztasun aundiz ta euskera txukun ederkorrez idazten zekiana. Erri-senezko emakume au goretsia izan bedi ta bizi bedi betiraunez gure Euskalerriaren gomuta ta biotzean. Beraz txalo berari Bizkaia'n kokatu zan gipuzkoar andre ta idazle euskaldun bikain oni.

Bitxikeri bezela jarri daigun Antonio Machado'ren ipuin bat berak euskeratutakoa.

### ONTZA "La Lechuza"

Olio zugaitz gaiñean  
ikusí zan ontza  
egan da egan,  
Zelai, mendiak,  
olio zugaitz artean,  
etxe zuriak.

Leio batetik  
sartu zan ontza  
Eleiza Nagusian.  
San Kristobal aundik  
uxatu egiten zuan,  
Amabirjiñaren ontzitik  
olioa nai zualako edan.

Andre Maria'k zion esan:  
—utzi egiozu Kristobal Aundi,  
nai aña dezan edan.  
Olio zugaitz gaiñean  
ikusí zan ontza, egan da egan,  
Andre Maria'ri zekarkion  
abartxo eze bat, esker onean.

Julenek oar au jarri zion: "Gauza bat da oleriaa, eta beste bat egia. Augaitik irakasleak azaldu bear dioe umeei, gau-txori onek ez duala oliorik edaten, ain pama txarra daukan arren. Eleizetan eta, itxita dagozan etxeetan sartzen ba'da, saguak eta eltxoak eta arrapatzeko izaten da. Olerti polita dalakoz ipiñi dut emen neuk euskeratuta. Zuek esan baiña, umeeri egia.

### JULENE AZPEITIA (Arritokieta)

*Yo maestra,  
a veces olvido  
las palabras  
y solo escribo  
AMOR  
en el tablero.*

*Maria Elena Quintero.*



Julene Azpetia. Irakasle euskalduna,  
benetako gogo sendoz ta, erritar senez,  
igaro zan erakutsi ederrak emonez  
azaldurik euskereaganako maitasuna.

Irakasle argia. Zumaiarra sorkunez,  
Euskerearen aldezle bioztun ta kutuna,  
larogei ta amabi urte luze, aztunez,  
erroturiko zugatz goilari ta bakuna.

"Arritokieta" andra zabal, etxe zalea;  
ilbarri dogun aberkide ta idazlea,  
emakume itxarokor, apal, dotorea,  
kristau doaitasunezko ekanduz betea.

Ainbat urteren buruz umeak eskolatuz  
olbaltzetan zenbakiak ta, Euskalerrriaren  
arduratasunez gogoak, biotzak argituz,  
ta, aldibera, azi ona erein ondoren...

Ta, ixilik aldegin ba-dauzku be...Bai, zeran,  
zelan aztu aren izena ta zeintasuna,  
bizi-zear irakatsiz, idatziz, ainbat lan  
iakingarri ain oparo eskeiñi euskuna?

Maitetasunezko irakasbide apalak,  
—ipuin, olerki ta idazlan argigarriak-  
amets estiz beteriko berbagai zabalak,  
euskal alorrera gogo betez ekarriak.

Argi-izpi eredugarri ta bizi-biziak,  
euskerearen sendabidezko itxaropenez  
altxorturiko zillar, urregorriteriak,  
erriari opalduak benetako maitasunez.

Biotz aundiko "maistra" ori, olerkariak  
argira dakar, bizi dedin emen, betikoz,  
guk be Ari iarraituz, gogo ta asmo sendoz,  
aurkitu daiguzan urrezko ari barriak.

**Muniategi'tar Sabin**

*(Azpetia'tar Julene'ren omenezko olerki au  
"ZER" bizkaierazko aldizkarian agertu zan  
1980 garreneko Orrillean, 32 zenbakian).*



# TENE MUJIKA

## TENE DEBARRA

**TENE** San Robustiano egunekoa zan eta Robustiana ipiñi zioten izen; euskeraz, Errobustene eta izen onen aizkeneko itzak artu zitun izenordeko bezala: TENE.

Garai aietako oitura bat zan euskal idazle artean. Iñor gutxi zekien "Lauaxeta" Estepan Urkiaga zanik; ezta "Lizardi", Jose Mari Agirre zanik. Euskal literaturaren historiarako Lauaxeta eta Lizardi izan dira, besterik gabe. Berdin gertatu zaio Orixeri ere. "Arritokieta" zan Julene Azpeitiaren izen-goitia.

Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Arritokieta, Tene eta abar, izenordekoekin dira ezagunak. Oitura bat zala, beste esplikaziorik ez du arazo onek.

**DEBARRA** Debako kalean jaioa, sendi euskaldunen artean: jaiotzetik euskeraz azia abertzale giro batean. Gertaera onek garrantzi aundia du euskaldun batentzat. Tene-entzako, dendari izateak, bazuan bere garrantzia ere eta ez nolanaikoa.

Zergaitik?

Deba-kaleko euskera ez dalako izan, tarteka beintzat, ain garbia eta egokia. Zeiñek ez du onelakorik entzun sekulan: Zer egingo riagu, ala rek eta?

Tene dendariak goizero ar-eman ugariak izaten zitun Itziaroko baserriar etxekoan-dreekin eta baserria izan da beti euskeraren gordeleku sakratua. Euskeraren ikastola nagusia baserrian egonda. Ar-eman oietatik jaso zuan Tenek bere euskera jatorra.

Jaiotzetik euskaldun izan eta euskera-giroan azia izateak zer onura eta abantailla dakartzkion euskal idazleari ezin diteke sinistu ere. Batez ere baserri batekoa izan ezkeroz. Alde batetik burua eta barruko sena euskaldunak; bestetik berriz, itzen aberastasuna. Burua eta pentsakera, jatorrak; itzak eta soiñekoa ere bai.

Euskera eta erdera molde desberdiñetakoak dira eta aurtzarotik euskerara burua moldetuta izateak, orretzek ditu abantailarik aundienak. Geienetan, erderaz lenengo esatendana, euskeraz aizken esaten da. Au argitzeko gertaera bat kontakodizuet.

Lekeitio gerratean bonbardeo bildurra zanean, kanpaiak jotzen zituzten, arriskua erriari adierazteko. Egun artan kanpaiak jo zituztenean, nere osaba batek bere ama eta senideak berebil batean erriatik kanpora eraman zitun koba-zulo baten ingurura. Leizea aldapa batean zegoen eta nere amama Pillipa eta bere lagun Gergori la Gorda, automobillean gelditu ziran koba-zulora gabe.

Ortan daudela gerturatu zaizkie miliziano erdaldun batzuek esanez:

—Qué hacen ustedes aquí, señoras?

Barruan zeudenak, ixilik. Gergorik esaten dio nere amamari:

—Berba egizu, Pillipa.

Eta gero neri gertaera ori kontatzean, esaten zidan: Pillipak barbarik be ez. Gailletak jan da jan.

Alako batean bera, Gergori, asi zitzaien izketan:

—Este señora de hijo de auto. No poder ser andar.

—Qué dice, señora?

—Fácil, fácil: este señora de hijo de auto.

Milizianoek naiko algara egin zuten Gergoriren kontura; baiña, berak neri esaten zidan: Aiek tontuak ziran. Nik garbigo esan ezin: Andre onen (este señora de) semearen (hijo de) automobilla (auto). Nola esango nien errezago? Ezin.

Euskeraz pentsa eta erderazko itzakin esan. Erdaldun batek ori ez du sekulan ulertuko. Baiña, alderantziz ere ez: erderaz pentsa eta euskerazko itzekin jantzitakorik, ez du euskaldun uts batek ententituko. Kursillo batzuek egitea ez da naiko, erdaldunak izanik, euskeraz idazteko. Jantzia izango da euskalduna; baiña, barruko molderik, ez. Orrelako asko dago gaur Euskeraren arloan. Irakurri itzatzue aldizkarietan agertzen diran iragarkiak; eskerrak aldamenean erderaz datoztela; ondo giñake bestela...

Orrelako buruausterik ez zuan Tenek. Buruausteak osasun aldetik zetozkion. Gaztaroan gaixo zebillen bizkar-ezurretik eta sendagilleak zionez, kiritokoa zan, nerbiotakoa alegia. Baiña, Lerenburg mediku famatuak etena zeukela bizkar-ezurrean esan zion, hernia de disco, eta ez zala sendatuko ebakuntzarik gabe. Operatu ondoren, ondo geditu zan betirako.

## TENE ABERTZALE

Ona zer dion Augustin Zubikai'rek:

"Teneren izatea, bizitza guztia, ortik joan zan: aberriaren maitasunetik... Emakume Abertzale Batza euskaldunen arteko erakunde bat zan, gerra aurrekoa. Politikan baiño geiago gizarte lanetan ekin oi zuten..."

Izlari ere ibilli zan Tene eta Oiartzungo festetan 1923garren urtean itz egin zuan Tenek. Onen mintzaldia entzun ondoren onela zion Gure Herrian "Oxobi" ifaraldeko idazleak: Oiartzunen izan zala eta an beltzez jantzitako emakume lirain, arpegizurridun bat ikusi zuala jendeari izketan eta barru-barrutik auxe irten ziola berari:

"Tene onen antzeko amar idazle bagenduz, Euskalerrria biziko lizake eta euskerak bere bidea zabalduko leuke".

Tene izendatu zuten Emakume Abertzale Batza orren lendakari eta buru Zumarragako billera batean, uztaillaren 7an, gerra aurreko urtean, 1935'an.

"Argia" astekari euskalduna zan eta urteero, Gabonetan, Egutegi bat atera oi zuan. Aizkenekoan, 1936'koan, Teneren lantxo bat dakar izenburu onekin: **1936-2036**. Eun urte beranduago biziko direnentzat idazten du. Begira nun zebillen aren burua. Badator ere bertan Teneren orrialde osoko argazki bat ere. Emakume Abertzale Batzakoan artean, lau emakume aukeratzen ditu Egutegiak eta Teneren berri eman ondoren, onela dio 150 garren orrialdean:

"Emakume guztiak eta ez emakumeak bakarrik, gizonok ere bai, Tene aiñean saiatuko bagiña, ez al da egia euskera indarturik ikusi al izango gendukela?"

Urte orretan sortu zan guda negargarri bat eta Tenek, beste millaka ta millaka askok bezala, abertzaletasunaren ondorenak jaso bear eta biziarengatik, danak utzita, itsasoz eta arrisku larrien artean La Rochellera igesi joan zitzaigun.

Aurretik onela idatzi zuan:

"Bere umetxuak euskaldun eta euskaltzale azi, ara emen emakume abertzalearen egiteko garrantzi aundidun bat".

## TENE EUSKALTZALE ETA EUSKAL-IDAIZLE

Onela dio Augustin Zubikaraik:

"Ba egoan bere garaian, berari (Teneri) atsegin jakon beste erakunde bat, erri askotako batzokietan zabaldu zana: Euskaltzale Bazkuna. Gogoz lan egiten eban or. Bere lenengo liburua "Miren Itziar'i Idazkiak eta Olerkiak" ain zuzen Euskaltzale Bazkunak Amorebietan egindako leiaketa baten saritua izan zan 1923garren urtean".

Aberria maite zuan Tenek eta aberriaren ezaupiderik garbíena dan Euskera ere bai. Orregaitik ikusi degu Oiartzunen euskal izlari beste toki askotan bezela; baiña, itzak aizeak eramaten ditu idazten ez badituguz. Teneren pentsamentuak beste askoren buruetara pasa ziran berak eze txo galdu gabe; eta orixe da izkeraren ederra; itzak eurak, ordea, galduak dira.

Zorionez idazle ere izan zan. Euskal-idazle eta arlo askotan, itz lauz eta itz neur-tuz.

**Kazetaritzako lanak**, gaztearokoak, Donostiako Argia astekarian, Bilboko Euzkadi egunerokoan eta Zornotzako Jainko-Zale aldizkarian agertu zitun.

**Liburugintzan** ere ibillia da. Liburu batean bi lan aurkezten ditu: bata Miren Itziarri Idazkiak eta bestea Olerkiak. Zornotzan saritua eta bertan argitaratua izan zan 1923'an. Berak aurreitzetan dionez, lenengo idazkiak Jel aldekoak dira: abertzale idazkiak, alegia. Eta liburuari buruz auxe dio:

"Bakar-bakarrrik billakatu Aberria maite-maite duan biotz baten naímen ona; bertan arkituko dezuten guztia onetxek arazia da-ta".

**Antzergille ere badegu Tene:** Iru antzerki egin zitun eta irurak izan ziran sari-tuak. 1934'an bi. Lenengoa Gogo-ónazeak, iru ekitaldiko antzerkia, biar GOAZ tal-deak antzetzuko duena eta DEBA aldizkarian dator xeetasun guztiekin Julio Urkare-giren eskutik; kritika lan ederra egin dio.

Gabon izena du bigarrenak eta "Umeentzako antzerkitxoa" dala díó egilleak. Auek biak Tolosan izan ziran sarituak.

**Irugarrena** ere ba du, Juan Jose izenekoa, iru atalekoa au ere. Oneri buruz ona zer díon Aita Santi Onaindiak:

"Onela idatzi eustan Tenek, 1973ren abustuan: Ni, 1936ko jorrraillean, Oñatin egin zan Asambleá Mariana Diocesana'ra aurkeztu nintzan, Certamen Literario saillera. Amabi gai ziran, batzuk erderaz, besteak euskeraz. Nik bidali nuan iru ataldun antzerki bat, **Juan Jose**, saritua izan zan. Gai bakoitzeko sari bakarra eta nereak berea irabazi zuan. Diruaz gaiñera Diploma eman zidaten On Mateo Mujika Gotzai jaunak izenpetua; berak eman ere. An laister, illebetera, gure guda. Guk bezela gure Gotzai jaunak emendik alde eginbearra izan zuan Prantzira. Gazteizen beste Gotzai berri bat eta beste kontu batzuk... An galdu zan nere antzerkia eta beste askoren lanak".

Eta arazo ori aitatu ondoren, Augustin Zubikaraiek onela dio:

"Txomin Agirrerren eungarren jaiotz urtea ospatzeko (1964) Ondarroako Lore Jokoetan, Menditar ipuiñak saillean, **Arnobarrengo Iñaxio** deiturako ipuiñarekin lenengo sana lortu. Lan au Amo izenarekin bialdu eban..." Eta ondoren jarraitzen du:

"Teneren idatzietan bein ere ez da igarten gorrotorik; beti samurtasuna, bigunta-suna, maitasunak eregindako errukia, norbere izatearen ezaupide sendo ta zindoa, baiña maitasun bitz eta garretan".

### **Ingelera itzulia**

Berriro Santi Onaindia aitatuko degu:

Olerkiak: "Adin oneko egiñak ditu itz- neurtuak. Eta ez gero suster barik. Xalo eta gozo egiñak daude, neurkera ugariz naiz arrantzaleai, naiz amoneri, naiz ikazgiñei, naiz biotz- maitaleei zuzenduak".

"Bere garaiean izan zuten olerkiok arrakasta eta atzerik. Watson Kirkkonell jaunak, esaterako, bere liburu **European Elegies** (Otawa, 1928) osotu eta argiratu zue-nean, Teneren **Udazken-ala** artu zuen bilduma artarako, ingelera jarrita".

"Nik neure **Milla Euskal Olerti Eder** eratu nebanean, Teneren sei sartu nebazan bertan: **Ama, Muxua, Ikazkin lilluratua, Gogo-negarra, Arnoko Gurutzia eta Neskuts Minduari**".

### **GERRA BATEN ONDORENAK**

Zubikarai mintzo:

"Eta 1936ko gerra etorri zan. Batetik bestera tatarrez ibilli giñan. Lenengo emen,

gero mugaz beste aldean. Banakak Euskalerrian. Beste batzuk barrurago. Tene La Rochellera. Alemanak Bretañan zear ibilli ziranean, an ikusi eben. Zetan? Ba euskal lan baten: artilezko galtzerdiak egiten, emen etxean egitera oituta egon zan erara. Beti, norbere premiñarik aundienetan be, apal eta errukitsu eta bere antzera tatarrez ebiltzan beste edozeñeri laguntzeko gertu".

"Norbaitek idatzi eban: Baiña egun batean biurtuko gera eta arritu egingo dira gure pentsabide berdiñakin biurtzeaz... Eta Tene ere biuriu zan eta lengoan jarraitu. Lengo lanean eta lengo maitasunean".

Exilatua izan da gero, bere errira biurtu zanean, erriko zenbaitzuk erritik kanpora bialdu zuten, desterrura. Baiña, desterruak ere amaitu ziran eta etxean berriro.

Ni Debara eldu nintzanean Tenek irurogeita bi urte zitun; erretiroa artzeko garaia; baiña, lanean aurkitu nuan: abestiak eta dantzak antolatzen, antzerki-lanak egiten... Auen berri Garbiñe Iriondok emango dizue.

### Garbiñe izketan

Larogei urte zituala, Ikastolara joaten ziran aurren gurasoei euren seme-alaba-txoekin izketan egiten laguntzeko, Cuadernos de Vascuence Hablado idatzi zuen. Onek agertzen digu noraiñokoa zan Teneren aalmena eta lanerako sena. Andik sei urtera, larogeta sei beteta, gaxoaldi batean, Zubikarairi ots egin eta onela esan zion: "Ni gero ta zarrago eta geruago eta lanerako gogo geiagoz..."


Bere lantxo batzuek Gazteen Elkarteko "Deva" aldizkarian agertzen dira: Telex Markexa eta Vixente Paxio, Don Lukas eta Txirilo, Manuel Mendizabal, Alguazil Txikia, Luis Kojua... Eta Erriko Festetako Programetan: Lengo gazteak, Zezena Ganbaran, Zezenaren sena, Joan ziranei agurra eta abar.

**Oorezko euskaltzain:** Larogeita zazpi urterekin, 1975an, oorezko euskaltzain izendatu zuten Julene Azpeitiarekin batera.

**AMAITZEKO.** Tenek idatzi eta siñatutako itz auekin emango diot aizkena nere jardunaldiari.

Jaunsinismena izan da beti  
on-bidea irakatsi didana,  
ta nere biotza egizko maitasunera  
igitu duana.

*(Deba'ko Kultur Elkarteak eratutako omenaldian  
Arrinda'tar Anes'ek egindako itzaldia).*



# KRESALA'REN EUSKALTASUNA ETA EUSKALKEREA

*125 urte beteko dira maiatzaren 4'an,  
Txomin Agirre jalo zala.  
Ondarrutarrakuste dabe urte guztiak ez  
dirala bardiñak izaten: zidar, urre, diamante eta  
eungarrenak, kanpai joteko urteak izaten  
dirala.*

*Origaitik, urtean zear, idazle ospetsu a  
omentseko asmotan dabiltz.  
EUSKERAZAINTZA'k atsegiñez gogoratzen dau  
erri-euskeran ain jator idatzi eban Txomin,  
eta zenbaki onetan, Ondarroa'ko "Boga-Boga"  
aldizkaritik ataratampozik agertzen dogu*

*oraintsu il zan Juan Gorostiaga euskal-jakintsuak  
orain 25 urte idatzi eban lan au.*

Asmo ederra Ondarroa'ko erriena, erriko-seme D. Domingo Agirre, Kresala'ren egileari, bear dauen gorapena emotea aurten.

Dakizuenez, iru euskal-liburutxu idatzi, edo eskribidu, ebazan gure D. Domingo'k: bata, antxineko euskaldunen kristautatzea diñoskuna, Riktrudis bera; bestea, Ondarroa'ko, jayoterriko agokoa ekartsona, Kresala; irugarrena, Euskalerriko mendilurren usaina guztiori amasartzen deragiguna, Garoa.

Ona emen, jatorrena nor dan ez dakigula, iru anaitxuok.

Burruka asi ez gaitezen, ba, iru anaitxuon tankerea eta aurpegia bardintxuak diralakoaan (aita bat-bera dabe-ta), erdiko ori, garerdikoa aukeratu, eta bere euskaltasuna eta bere euskalkerea zelakoa dan ikusi daigun.

Ondarroa'ko izena, bere itxaso aserrearen antzeko izen orroatsua, munduko zazpi itxasaldeetan entzun ez dauenik, ez da. «Boga-boga, mariñela!» abesti, edo kantu, sendo-samur orrek egoetan zabaldu du nunbait izen ozen ori. Naikoa abesti aldakor batentzat!

Ba' da, orraitioño, beste zerbait, ez egoduna, orriduna (Kresala liburutxua esan gura dot) «Boga-boga, mariñela!» abestiak baño zoliago eta sakonago Ondarroa'ko durundia eta agokoa dekarguna. A ze maitagorri agertu yakun Ondarroa'ko erria, bein Kresala lenengoz irakurri genduanean! Baña, bildur naz aitatueten be ¿zenbatzuk gure oraingo euskaltzaleak irakurríta ete dauke Kresala?

D. Domingo Agirre, Ondarroa'ko seme ospetsua goratu-naiez, aren liburutxua, Ondarroa'ko írudia geure biotzean barruraño sartu euskuna, neuk be ikutu gura dot orain, bere soñekoa eta azala, bere azurra eta arímea euskaltzale gazteai erakusteko.

«Ondar-aletxo» baño ez zan, aitarean ustean, Kresala, jayo zanean; beintzat, gaur, irurogeta urte jayo-ondoren ikusita «ondar-aletxo» ori, polite azi eta anditu dala esan geinke guk, Kresala da-ta euskal-elerti, edo literatura barriko landaretan bikañeneta-riko bat.

Luzeegi litzakigu landare orren orri guztiak bana-banaka astindu eta zuen aurrean ipintea; obe deritxogu laburpen bat egin, zatitxu bat eta zatitxu beste bat, andik eta emendik ebagi, eta oyal bat, argazki, edo fotografi bat, yosi.

Kresala liburuto andia izan ez arren, ba' daukaz gitxienez ogetasei erakur-gei buru, eta ogetasei ikusgei irudi. Gure begien aurretik, or doaz arinka ekatxak eta galemak, jaiak eta elizkizunak, nekeak eta arrantzuak, jardunketak eta eztabaideak, mendiak eta udabarriak, urteak eta... biziko biribila beti bere lengo bidetik geldiezi-na.

Ba'da, barriz, beste zerbait asieratik geldie-edo dagona, betie-edo lengo lekuan dagona; ez ila dalako, bai baña bere indarra eta bere gogoa barrubarruan daukalako, eta zirkinik egingo ez baleu lez dirudialako. Berau da Ondarroa'ko tokia, sus-traia.

«Errekarte ta mendi egal soko batean dindilizka dagoan erri koskor bat da gure Ondarroa» (18). Ona emen, len esan neutsuen argazki pospolin orren zatitxu bat. izenak berak diñoanez, argia, eta ez ziri-borro bat.

Baña, zeñek erri koskor ori eragiten dau? dindilizka dago-ta? Bizidun bat da Ondarroa'ko erritxua, erraldoe bat da; anak eta sorbaldak ditu, bularra eta bekokia, odola eta biotza, negarra eta irribarrea daukazan erraldoe bat da Ondarroa'ko erria.

Begira! «Uretan daukaz oñak; aldats andiak iri edo kalietan; kale batetik bestera, zearretarako arri malla pendiz urteakaz leunduak; etxeak bate bestien gañean; atzeko aldea lurpean sarturik eta aurrekoen tellatutik arpegia erakusten; iñok usteko ez leukean aña gizadi etxe baktxean, berrogetamarretik gora beti, umeak geienak» (18).

Soñeko koloredunak, jai-egunekoak-edo yazten ditu beti erraldoe orrek: «Leio zulo danetan atorrak eta gonak, alkondarak eta prakak, itxas-gizonen jaka urdiñak eta oeko zapi zuriak esegita» (18).

Erraldoe orrek bere gorputz osoa, buru eta besoak eta bularra pitxi ederrez betirik daukaz: «Ez dago inguru guztian alperreko lurrik. Uri onen burualdetik, ondo landuriko soro, baratza ta sagastitxu batzuk agertuten dira, eurak eme, sortu ta asi daroen guztia erriaren eskiñita ba-legez legez; bealdetik, mueta guztiko txalopaz



beterikako ibaia igaro ezker, aurreko beste mendiaren ondoan estu dagozan ontzi-tegiak edo itxasoak bere goraldietan besoak zabalduteko bear daben ondartzea» (18 et 19).

Zanak be ba'ditu erraldoe orrek zan gerdiñak eta beroak, irakiteko-larri:

«Erri onetako kale mendar, oker da aldaztxuetan itxas-gizonen gozategi edo arkangelak non dagozan berialaxe igarri leike, ostro berderik ikusi ez-arren: naikoa da zaratarik andiena non dagoan entzuten geratutea» (19).


Eta isilpenan itxi ezin dogun zana, zan luzea eta zabala benetan: «Mendien ega-lean da itxasoaren ondoan Ondarroatik Lekeitioraño dagon iru orduko bidea, nik ikusi ditudanetik ederrenetako bidea ba'da.

Bide orren alde batetik ikusten da, orain aldat bera datorren solo gariz betea, gero sagastitxo bat, laster baserri eder bat, beingoan iratza zabal berdea, gastañadi andia urrengo, aristi tantaitua ondorrean, errekondu sakon bat noizean bein, sagasti andiak ostera, soro landuak barriro, ta bidearen biurri batean, usterik gitxien dan orduan, buru alde guztia arrano goitarrez inguratuturik daukan ikaragarritzko atx andi baltz sendo ta arro zerurutz jasoa.

Beste aldetik Kantauriako itxas bardingabea agiri da bere betiko edertasunez apaindurik... bide orren itxasaldetik dagozan atx zati andiak, batzuk, txukntasun bageak, akatzez beteak eta zulotsuak... atx a arte orreitarra jaurti oi ditu itxasoak, bere amorroan ezpanetara yatorkon bitsagaz nastauta, ibaiak legorretik eroaten deutzan egur, mallasto, aber-ill da sakar guztiak; txalopetitik jausten direan edo bage susarditsuak ataraten dituan balde, tosta, panel, tolet, estropu, lanbas, kako ta treotzarak...» (138 eta 139).

Erraldoe orrek beste edergarri be ba' daukaz. Ona emen bat: «Ederra da Ondarroako elizea. Kanpotik egiratu ezker, edozeñek daki godotarren egikerarik onenetakoa dala; barrutik zer egikeratakoe dan ezin ondo igarri leikeo. Txurrigera'ren egunetako bots edo sei elizmai edo altara daukaz, zabalak eta galantak, nagusiaren eskumalditik Done Pedro'rena, ezkerretik kurutzean josirik degoan Jesus'ena» (16).

Orra beste edergarri bat: «Ondarroatarrak, mendi gañean, errira begira daukie, rriaren zaintzallea da-ta, Ama Manaren irudi eder bat, baseliza politpolitean ondo gordeta. Guztiz da maitegarria ta oso dabie maite arrantzaleak: bera da euren ariizarra, euren itxaropen, argi ta poza, euren biotzetako Ama kutuna...» (46).





Erri koskor orrek —ez ain koskorra gero— biztanleak be ba' daukaz; ta zelako biztanleak! «Bertan agertuko dirn gizon da emakumeak ez dira neure irudimenak asmau dituanak: oso itsua ez-ba-nago ta amesetan ez-ba-nabil bizibiziak dira, itxa-soko sardiñak legez...» (10).

¿Biziak? diñozu. Bizi bi-dunak, beintzat izen bi-dunak, bata kristauena, eta bestea, «ez-izena edo izengaitztoa»: ez uste, baña, deabruena dana. «... irakurleak jakin daia-la lenengotik, Ondarroa'n ez dagoala ez izenik ez daukan etxadi bat bakarra; andiak eta txikiak, aberatsak eta landerrak, guztiak daukie eurentxua...» (28). «Ondarroata-rren belarriak ain dagoz onetara egiñak, eze, batzuk, euren benetako izena zelan dan be ez dakie; norbait ezagutu dot bere aitazena gogoratu eziñik; aita-aitarena git-xik jakiten dau» (29).

Emen dozuz esate baterako: «Ankaluzea, Ardauzuri, Artobero, Ezneepela, Gatz-bako, Sardinzarra, Txanogorri, Seguzarra, Lapikotxu, Mangoliño» eta bar eta abar.

¿Nor da, esateko, «Nitolis» ori? «gizon txiki polit makur bat... bere sorbaldetan laro-geta bi urte andi jasoten zituan gizona»? (87). Berberak esango deuskuz «toleta baño andiago» ez zala asi ta, itxasoetan igaro zituan neke eta negargarriak (88...).

Eta ¿nor da Mañasi ori, Kresala'ren asieratik azkeneraño doan geriza ori, sorgin-ipuinetan bezela ezkondu eta zorionekoa izan zan Mañasi? «Ule zaltz ugari ta ondo orraztua eukan, bekoki zabal leuna, azal zuri garbia; begiak bigun, garbi ta argit-suak, ao txiki guztiz polito itxia... itz batean esteko, jeuregiren baten jaioa zirudian da ez arrantzale txiroaren alaba» (53).


Benetan «arima argidun da biotz samur sentikorraren jaubea» zan (53); entzuen ezpabe, bere Anjel maitearen alde, itxasgorri aserretan ebillanean Anjel ori, Mañasi'k erioan, edo esan eban, otoia eta erregua: «¡O Aita San Pedro neuria! urrezko giltzak zakuztaz, zeru ta lurrean Jaunak emondako eskubidea daukazula esan gura bazeuntza legez. Erakutsi egiguzu gaur eskubide ori ez dala arimen onerako be bai. Arrantzalea ziñan zu be, ta errukitu zaitte gure arrantzaleakaz; eregi eikeozuez, Jau-na, nunbaiteko atean» (25). «¡O neure Jaungoiko andia) ¿txarto egin ete dot gizon batzuen bizitzeagaitik ain artega egotea? ¿Gaiztakeria ete dot au? ¡O Jauna! parkatu egidazu, ta egin bedi beti zure gurari santua» (26).

Kresala'ren laburpen bat, oyal edo argazki bat, zatizka, egin bear genduala ta, nire «ondar-aletxoa» be, azi eta anditu da, geyegi ustez.

¿Nork Ondarroa'ko argazki bizi au egin? ¿Nork Ondarroa'ko erriari bizitasuna emon? ¿Nork gauza ilari atsa emon? D. Domingo Agirre dogu bere egilea, irazalea, griegoak «poeta» iñoena.

Berari gorapena zor deustagu euskaltzale guztiok.

**Juan Gorostiaga**



# BERTSOLARIAK ETA TXOMIN AGIRRE

## ABADE...

Ujel gaiztoak tinkoíak bota,  
esiak ausi ta eten,  
barruan zeuden bildots umillak  
beren tokitikan urten,  
banatu eta didarka daude  
artzai ona itxaroten,  
aita Agirre dagon tokitik  
ez ote ditu ikusten  
beran etxeko barrutitxuan  
auzoko ardiak jaten?

Txomin Agirre! Zer mingotxa dan  
atsekabearen miña,  
lenago baizik oraintxe ere  
badago zure premiña,  
gaur etzenuke ezagutuko  
zeu bízitako jardíña,  
aldameneko ota almitxak  
sikatu du belar piña,  
negar malkotan buztiko zeunke  
oraintxe bízi baziña.

**J. Ibarzabal**

## EUSKALDUN...

Txomin Agirre izan genduan  
egizko euskaldun zintzua  
pare-gabeko euskal idazle,  
ertilari jakintsua.  
Jakintzaz aundi, baña apala,  
erri maitale sutsua,  
nagirik bako langille trebe,  
borondatez indartsua,  
«Garoa» eta «Krelasa»k dauke  
bere jakintzan mintsua.

Izakera alai eta apala  
urre-gorritzko biotza.  
Altasun aundi, naimen zindoa,  
santua bere bizitza.  
Bere Euskera ta idazkera  
eder eta aberatsa.  
Zorioneko Txomin Agirre,  
zuk landu zendun baratza.  
Euskalerrriak gizon oneri  
mesede asko zor dautza.

**Enbeita'tar Balendin**

## ONDARRUTAR...

Ondarrun jaio, Zumayan bizi,  
beti itxaso aurrean,  
zure begiak busti ziraden  
Kantauriko kresaletan,  
mariñel gaixo errukarrien  
negar eta nekietan;  
«Kitolis» zarra ta «Anton Betozko»  
*ikus* zenduzan itxaspetan,  
baita agertu euren larriak  
kondairik samurrenetan.

Erri polit bat dago Bizkaían,  
txikia baña txukuna,  
zure «Kresala» iruditzeke  
zuk aukeratu zenduna,  
beti maitekor goraldutako  
Ondarru erri kutuna,  
seme argi ta onentsu legez  
ezagututen zaituna,  
zure ereduz, zure aginduz,  
Euskera zarran laguna.

**Urtubixa'ko Peru**

### ITXASTAR ETA MENDIZALE...

Zure girantzán nator Agirre  
itz egitera barrutik,  
gogoratuaz zenbat gauz eder  
sortu zenduzan burutik,  
zuk maite zendun izkuntza zarra  
osta osta dabil zutik,  
al zenduana gogoz egin da  
juan bai zihan mundutik,  
baiña gaur ere premis dago ta  
lagun zayozu zerutik.

Kresal artean jayua zihan  
Ondarrua'ko errian,  
baña gogoa itxas ertzean  
bezela zendun mendian,  
zure Kresala eta Garoa  
zer gauza ederrak diran,  
gelditu gabe euskera alde  
ibilli zihan lanian,  
Zeruko Jaunak gorde zaitzala  
betiko atsedenan.

**J. Azpillaga**

### GIZON ANDI...

Ondarroako erri maitea,  
zuretzat nere bertsua,  
nik zure gana beti pozetan  
nere biótza jasua,  
euskaldun zera ta arrantzale  
ia ia erri osua,  
gau eta egun zuri laztanka  
Kantauriko itxasua,  
Txomin Agirre aundia sortu  
zenduan kabi gozua.  
Egun da Txomin Agirre  
mundu ontaratu zala  
eta entzun det omenaldi bat  
egiteko dabiltzala,  
ark egín baizun Garoa eta  
ark egín zuen Kresala,  
juzkatua zan gizon aundi ta  
euskaldun on bat bezala,  
gure Jainkoak zeru goietan  
ala juzkatu dezala.

**Uztapide**

### POZIK OROITZEN ZAITUZTE...

Iru liburu dauzkat zureak  
pitxi modura gorderik,  
euzkeraz ezta gaur arteraño  
idatzi askoz oberik.  
Ondarru maite, egon zindezke  
zu poztasunez beterik,  
gure izkuntzak izan ote du  
malla ortako semerik?



Euskal anima zer dan agertuz  
emanik ainbat albiste,  
berdingabeko zure lan oiek  
gorantzak bear dituzte.  
Merezi duna eskertze ontan  
ba-gera nomai ainbeste,  
euskaldun bertsolari apalak  
pozik oroitzen zaituzte.

**Basarri**

### IDAZLE...

Itxas-ertzetan eta  
kale baserrian,  
milla pausu emonik  
gure Euskal-errian,  
argi ipiñi eban  
guztien begitan  
Euskaldunak zer garen  
liburu argitan.

Mundura etor zala  
eun urtera doa,  
baña ezta amaitzen  
Txomin'en aroa...  
Berea da «Kresala»...  
berea «Garoa»,  
Euskerak gaur be bere  
bidea daroa...

**J. Lopategi**

### BIZKAIERAZ JAKINTSUENA...

Txomin Agirre zuk bete zendun  
euskaldunaren gogoa,  
euskal idazle biurturikan  
biótz, gogo ta agoa.  
Ondarroa'ko seme argi bat  
ezinda abillagoa,  
fede andíko izlari ona,  
bertsotan ederagoa,  
Jaungoikiaren ordezkartizan  
Kristo'ren ondorengoa.

Zure izkuntza ederra zer zan  
ta zure biótz umilla,  
bizí guztia igaro zendun  
fedeko itzaren billa.  
Bizkaierazko jakintsuena,  
Gipuzkeraz abilla,  
gure Ondarrun auxe esaten  
dutenak ba dira milla,  
zu bezelako beste seme bat  
lenbailen sortu dedilla.


**J. Mugartegi**

(Ondarroa'ko "BOGA-BOGA" aldizkaritik artuak)



EUSKERA-ZAINTZA'REN AZKEN LIBURUAK  
UME TA ZARRENTZAKO AUKERAKUAK.

# IZADI'KO PITXIAK LIBURUAREN AURKEZPENA



Ona emen IZADI'KO PITXIAK deritxan nire liburuari, argitara jaio dala. Norberaren idazlan baten argitara ekartea, seme jaio barri bezelakoa da, eta aitasun onek egileea poztasunez bete egiten dau. Aurrera joan baiño len, gora-beera batzuk emotea egokitzen daukat, liburu au ulertzeko lagungarria izango dalakoan.

Zergaitik idatzi dot liburu au...? Ara... nire lengo liburu "Oroitzak" deritxana irakurri ondoren, lagun batek auxe esan eustan: "Atsegin izan yat benetan liburu, baiña edeskien arteko niretzat ederrena, basurdearen edeskia izan da. Aizu, zergaitik ez dozuz beste abereen gora-beerak idazten...? Oldozkor itzi ninduan lagun aren eskaerak, eta andik illabete batzutara, gure inguruko beste zenbait abereen edeskia gertatzen asi nintzan.

Zergaitik ni bizkaitar izanik, gipuzkeraz idatzi...? "Oroitzak" liburu gipuzkeraz idatzi neban, eta basurdearen edeskia ez aldatzearren, enparauko abereenak be, gipuzkeraz idaztea erabagi neban. Ona emen, beraz, edeski-sorta au gipuzkeraz idatzia.

Zein elburu izan dot "Izadi'ko Pitxiak" idaztean...?

Lenengo ta bein, euskerari zor dauztaguna emotea, eta gure arbasoek orretarako izan eben zabartasuna zelanbait ordezte. Onezaz gaiñera, baiña, barrutik baebilki-

dan beste elburu bat, eta auxe alegia: gure aberriko abere batzuen bizierak adierazotea, baiña orretarako biderik onena, nire ustez, abere bakotxaren edeskia elebarri baten antzera kontatzea, nori nagusitzat edo protagonistatzat, dalako aberea aukeraturik. Eta onekin batean, zelakoak diran eta zelako jokabideak darabillezan, guretzat maiteagoak izan zeitezan. Ezagueratik maitasuna ei'dator, eta bearrezkoa da, jendeak inguruko izakiak ezagutu dagiazala, eta era onetan areik maite izaten lortu ere.

Jaungoikoak sortua da gizona, baita zabaldiko abereak ere. Ezagutu ta maite izan dagiguzan beraz. Zertarako ainbeste abere erail...? Gizonaren gosea asetzeko ala arrokeria ta eiza-irrika asetzearren...? Lenengo egoeran zillegi deritzat bearrizan bat betetera datorrelako, baiña bigarreanean ankerkeri uts eta itsua. Egia da, basabere batzuk gizonen ekarriak zemaizten dituela, baiña kinka orreitan oreka egokia billatzea onuragarria litzakigu.

"Izadiko Pitxiak" deritxan edeski-sortak zortzi basabereen gora-beerak dakaz. Bakotxaren edeskia egiteko, guztitariko abereiztiak arakatu dodaz, arein oiturak, janari-motak, bizi-lekuak, ernaltze, ugalketa, ume-zaintza, etsaiak eta beste galtzoriak aztertuz. Edeski-sorta onetan agertzen diran zeatz oneik benetakoak dira. Beste gauza da, ain zuen be, gure basa-lagunen sentipenak bene-bentan adieraztea, gaitxoek itz egiteko aalmenak ez dabelako. Arlo onetan, baiña, idazleak berak ezkutu ori bete egín dau, basa-bereínoen barruko sentipenak egilleak asmatuz. Argi dago, baiña, izadiaren legeai jarraituz, maitasuna, aserre, bildur, gose, egarri etabar sentitzeko gai dirala, eta olan, eraiki-gai onein bidez, idazleak basabere bakotxaren elebarria jaso egin dau.

Euzkadi'n bizi diran zortzi abereen edeskiak kontatzen ditut. Ona emen zortzi nori nagusi edo protagonista orreik:

**AIINGIRA.** Gaurregun bene-benetan egiztatua da, ibaietako aingira-emeak amar-amabi urteko diranean, ezin-egon bakanak artuta, ibaian beera abiatzen dirala, eta arrek lagunduta, itsas zabalean zear milla kilometro askotako bidaia egiñik, Antillas aldean dagoan "Sargazotako" itxasoraiño doazala, eta emen arrautzak milloika errun eta arrek emaldu ondoren, betirako sutziten dirala. Arrautz ñimiñook "Gulf Stream" edo kolko joairak eroandako, iru urteko bidaian, Europa'ra irixten dira eta onezkero txitxardiñak biurtuta, ibaian gora abiatzen dira, euren garaian aingirak billakatzeko.

**UGADERA edo 1GABERA edo IGARAINA.** Ona emen gure aberrian antxiña baten ibaietan ugari ziran ugaztun igerilari bikain oneik, suntzitu dirala. Orain berrogei ta amar urte, neronek ezagutu nebazan txori-erriko Sangroniz ibaian. Orain ez da bat bera be ikusten, gizonen zorakeriak eta lantegietako kutsadura dala-ta. Urzale izeneko ugadera batek mundura ekarrirako kume baten gora-beerak azaltzen dira edeski onetan, guztitariko galtxorien artean, jaio zanetik, noizbait zoriona aurkitu arte.

**ERBIÑUDEA edo AGOLATZA edo SATANDERRA.** Arratoia baiño txikiagoa dan basa-bere au zangartasun itzelakoa da. Zabaldian ikusten da or-emenka gar txiki baten antzera, urduri ta azkar, bera baiño askozaz andiagoak diran abereai aurre egiñez. Txikia baizen zangarra da, eta soin ñimiño orretan kokatzen dan adore ta zolitasuna siñeskaitzak dira. Janari-billa diarduanean, edozein zulo edo zirrikiturik txikienetan zear igaroteko gai da, eta bearrezkoa izanik, bizitzaren alde ekingo dau bildur barik. Bein baten mendiko gurdibide baten zear niñoala, nigandik ez urrun arratoi andi bat eta erbiñude txikiaren arteko euren biziko burruka ebela ikusi neban, zoritxarrez, baiña, orduantxe ikusi ninduen, eta sasien artetik ezkatutu ziran. Ezin ikusi zelan amaitu zan arazoa, baiña baietz erbiñudea garaille izan zala.

**AZKONARRA.** Basabere onek Euzkadi'n oraindiño irauten badau be, ez da askotan ikusten. Asko urritu da. Joandako urteetan arein ulea oso ederretsia zan bizarra jaboitzeko erabilten ziran zurdaki edo brotxak egiteko.

Gure edestiko azkonarra, zuloz zearkatzeko bere lurpeko egoitza nai ta ez azeri. batekin banandu bear dau, eta onen ondorioz, azkonar aserrekoiak azeriari bizitza zor dautso. Azkonar au, baiña, ago-sapai bikaiñekoa da, eta griña onek gizonaren etxeraiño erakarten dau janari onaren atzetik. Au dala-ta, bere burua galtzori gorrian ikusten dau. Olan eta guzti be, noizbait eme-laguna lortzen dau, eta onen ondorioz, endaren iraupena ziurtatzen da.

**AZERIA.** Gaurregun basabere au gure zabaldian ugaidu egin da, piñudi gazte ta sastraka lodiakaitik. Zailla da leku oneitan arrapatzea, geienetan ikusteziñak baidira. Gabaz, baiña, janari-billa urten bear, eta neronek bizi nazan inguruetan berebillean noala, bidea zearkatuz ikusi ditut askotan.

Edeski onetan "GORRIA" "ANKAMOTZ" en azeri bikaiñaren semearen edeskia aurkezten da. Piñudi edo lertegi eder batean jaio zan "GORRIA". Beste bizilekuaren billa joateko garaia etorri yakonean, zabaldian zear abiatu zan, URREBEGI bere arreba txikiak lagundutako. URREBEGI aula zan eta beti GORRIA'REN babesa billatzen eban. Biok alkarrekin bidai luze bateri emon eutsoen, eta amaika gora-beerak jasan ondoren, Gorria Irati'ko oianera eldu zan. Urrebegi gaixoa eiztari batzuk erail eben arako bidean.

**BASURDEA.** Ulkiz izeneko basurdea Naparra'ko mendietan jaio zan, eta bere ama ta anai-arrebakin bizitzaren alde ekiten ebala, ezbear baten, bakarrik aurkitzen da eta Palentzi'ko mendietan basurde-talde bat aurkitzen dau, eta onekin endaren bizierari emoten dautso.

Bein baten, jaio izan zan lekura biurtzeko irrika garaiteziña sortu yakon, eta dana itzita aruntz biurtzen da. Bizkai'ko mendi baten, baiña; eiztarien oparia gertatzen da.

**ERLEA.** Amaika azterketa egin dira mamorro onein bizitza ezagutzeko. ERNAIA izeneko erle bat norki nagusizat artu dot, erleen bizitza ta gora-beerak edesteko. Izan be, erleen biziera ta oiturak lilluragarriak dira, eta alderdi askotan guretzat eredugarri.

ERNAIA Zuberora'n jaiotako baserlea dozue, eta amaika gora-beera jasan ondoren, bere erriko gorenetao erlea billakatzen da, eta berari ezker, bere multzoa gaizkatzen da.

**OTSOA.** URI izeneko otsoaren gora-beerak edesten dira emen. Bein baten, Tina'ko Mendietan (Picos de Europa'ko) mendietan, ango menditar batek otsokume bat arkaitz baten aurkitu eban. Maitasunez eraginda, kumetxua etxera eroaten dau, eta emen txakurra bai'litzan azten dau, alkarren arteko maitasun-lokarri bizia sortzen dala.

Mutilla etxean ez danean (gudaritza-aldia beteteko joan dalako) auzoko beste mutil bat bere ardiak ilten dalakoan otsokoa il nai dau, baiña azkenez iges eginda, bere endakoekin biltzen da.

Urteak joan ziran, eta aspaldiko otsokoa otso bikaiña bihurturik, otsotalde bateko nagusia billakatzen da. Bein baten, gudaritza eginda errira biurtuta, gazte menditarra beorak ikusteko arkaitzetan gora abiatzen da, baiña edur-ekaitza batek artuta galtzen da. Egun aretan, Uri'k agindutako otsotaldea gose gorriak eraginda, arrapagai baten billa joiazala, mutillaren usaiña artzen dabe. Menditar mutillak bere azkena zala uste izaten ebanean, Uri'k ezagutu eban. Beste otsoek baiña, mutilla erail nai eben goseak eraginda, baiña URI'k mutillaren alde jarrita, bizitza gaizkatzen dautso. Gero, erriraiño lagundu eutsan, eta ara elduta, mutillak berarekin etxean bizi zedilla nai eban, baiña beranduegia, Uri basabitzara artaratua zan, eta aspaldiko ugazabari azken agurra egiñik, mendian gora suntziten da betirako.

Onezaz, amaitzen dira liburu onen edeskiak. Bukatu baiño len, baiña, Gaztaña-ga'yar Jesus'eri ta Oñatibia'tar Manu'ri, liburu au argitaratzeko emon dausten laguntzagaitik, eskertu nai dodaz.

**ZUBIRI TAR IÑAKI**





# ITZAK

Or, nonbait esan nuenez, euskaldun batzuek poztu egin ziren.

Iritzi ortakoa bakarrik ez naizela, geroago ikusi det. Caracas'tik Euskalerrira etorritako etxekandere euskalduna ere, iritzi ortakoxea zala ikasia naiz.

Izan ere, ainbeste euskaldun erbestean izan gera; eta, beti, beiñola utzi genduen Aberria, eta Aberriko izkuntza maite-bakarra beti gogoan izan degu. Askok beintzat bai.

Orain, berriro, otsaillaren ogeitabosgarrenean, Euskaltzaindi'koek, nere irakasle aundi BARANDIARAN Joxemiel'i egin zioten eskaintzaz eskerrak emanez, arek auxe esan: "Euskera galtzen ba'da, gure askaziak egin du".

Noski, gure euskerak itz-egiñez eta geron ezpañetatik utzi gabe iraun dezake. Itz-egitetik, itz-egitera ere, alde ederra dago!!

Agian, itz-egiterakoan euskaldunago gabiltza, euskeraz idazterakoan baño.

Beintzat izketan ari geranean, onako itz au ez dakit, iñon bein ere entzun otededan. Nik bezela, beste askok ere ez. Idatzi bai. Geiegi ere bai, noski!!! Idazterakoan AZPIMARRATU itz au, euskeraz asko erabiltzen dute. Askotxo ere bai!! Itz orri dagokion erderazkoa, erdaldunek askotan darabilkitela?...

Eta besterik gabe, guk ere beste orrenbeste egin bear al degu?

AZPIMARRATU orren adirazpena, eusko itzez ez al genezake adirazi? Itzaren mamia, euskal itzez erabili ez?

Agian onela: IKUSTARAZI edo IAKINARAZI. Bai ta, bakoitzat berak eraturako edo asmatuko luken itzez ere.

Ain itsusi gertatzen zaidan, AZPIMARRATU itz au, lenengo nori bururatu zitzaion ez dakit. Eta, obe!! lakingo ba'nu, alako ori aurpegira bota gabe ez nintzake egongo. Orixe!! Minduko litzake. Eta, iñor mintzeko eta zapuztutzeko gogorik ez det. Almenik gutxiago.

Nik baño euskera geiago dakitenak, asko dira. Zorionez, gañera.

**Loyola, 1989.2.28**  
**Etxebarria'tar P. S. J.**



# ERDERA BAZTERTUA, DISKRIMINATUA?

Lan-toki berrietarako aukera edo azterketak egiterakoan, euskera jakiteari, duan garrantzia emanaz, alde puska bat ematen zaiola eta, milla karraxi entzuten ditugu, ortarako eskubiderik ez dagola, billaukeri bat dala, erdera baztertua, diskriminatua dagola oju egiñaz.

Benetan ala ote? Ikus dezagun: Euskera ta erdera, bi izkuntzak babespen berbera dute; biak dira mailla berdiñekoak. Euskalerrria'n edonork bere eskabideak bi izkuntza oietako batean egiteko eskubide osoa du. Eskubide orrek eraginda, euskera besterik ez dakin bat edo euskera utsean itz edo idatzi nai duan bati, batez ere erri erakundeetan, erdera erabilli arazterik ez dago. Eta alderantziz berdin: erdera besterik ez dakian bati edo erdera utsean itz edo idatzi nai duan bati, batez ere erri erakundeetan, euskera erabilli arazterik ez dago.

Zorionez edo zoritxarrez, erdera utsean jarduten diranak, beren asmoak agertu ta uler arazteko; iñungo erri-erakundeetan ez dute zailtasunik, denak erdera ba-dakite eta.

Euskera utsean itz egiten duanak berriz, erri-erakunde asko ta askotan, geiegitan, lenengo entzungo duan erantzuna auxe da: no se euskera; háblame en castellano.

Ezbairik gabe bere onetik atera ta gora joko luke, erri-erakunde artako laguna kendu ta beste bat, erdera dakian bat, jartzeko eskatuz.

Euskera utsean jardun nai degunok orixe bera egingo ba'gendu, zer esango ez ote luteke erdera-zaleek?

Arazoa ontan dagonez, erdera ez, baizik euskera da baztertua, diskriminatua dagona.

Aria berarekin jarraituz, erri-erakunde GUZTIETAN eta ala ez izan eta erriarekin ar-emanak dituzten lantegi ta erakunde gustietan, Aurrezki Kutxa, Diru-etxe, denda, autopista, eta beste gaiñontzekoetan, euskera ere ez dakian iñor ez litzake jarri bear.

Au orrela egiten ez dan bitartean, euskera baztertua egongo da.

Nola jokatu bear ko litzake? Erri-erakundeetan erriarekin ar-emanik ttikiena eduki bear dituan guztiak, NAI TA NAI EZ, euskera jakin bear ko du. Au, euskera jakiteari alde puska bat, punturen batzuk ematea baiño gogorragoa dala esango dit norbait, baiña lentxoago idatzitakoa gogoratuz, lantegi oietakoren batean erdera ez dakinen bat jartzea begi onez ikusiko ote luteke erdera-zaleek? Orregatik-ba, erri-erakunde GUZTIETAN BEAR-BEARREZKOA da erdera bezela euskera jakitea: NAI TA NAI EZ, euskera ta erdera biak ondo jakin bear ditu.

Lotsagarria benetan, Udal, Aldundi, Jaurilaritza, Ertzaintza, Errizaingoan, Aurrezki Kutxetan eta abarretan, euskera ez dakitenak egotea.

Salaketa egitea ez da naikoa ta garaia da era ontako erabakiren bat artzea: Erri-erakundeetan Erriarekin ar-emanak dituzten lagun guztiak, IRU URTE BARRU euskeraz itz egiteko gauza izan bear dute; agindutakoa betetzen ez dutenak lanik gabe geldituko dira.

Erri-erakundeek eredu ori eman ezkeru, laster lirake besteek, erabaki berdiña arzen edo ta erriarekin ar-emanak dituzten lekuetan euskeraz dakitenak jartzen.

MANU

# OMENALDIAK

**UNO AKESOLO.**— Aldatzen ez ba da, apirilla'ren 7'an, eguerdiko amabietan, Bizkai'ko Foru Aldundiak omenaldi bat eskiñiko dautso Aita Lino Akeso-lo'ri euskeraren alde egindako lanen eskarrez.

Bere idazlan guztiak tomo bitan agertuko dira, baiña gertutze eta irarkolako lanak denpora eskatzen dabela-ta, liburuok geroago agertuko dira, omenaldia esandako egunean ospatuaz.

Geroago, uztailean, EUSKERAZAINTZA'k berea opalduko dautso Dima bere jaioterrian, eta bere jaiotetxe inguruan.

**SANTI ONAINDIA.**— Zornotza'ko erriak Aita Onaindiagaz eskertsu agertu nai dau.

Aita Santi'k 80 urte beteko ditu laster eta ainbeste urtetan uri aretako Larrea'ko konbentuan bizi eta zornotzarrei euskal eredu izaten erakutsi dautsen Aita Santi'ri, erriko seme kutunei dagokien ezaupidea emongo dautso.

Aita Santi, jaiotez amorotoarra izanarren, zornotzar lez agertzen da, azken guda ondoreneko urte bat edo beste kenduta, bere asmo, gogoeta, lan eta agerpide eta erakustaldiak erri aretako lez egin bear izan ditulakor

Origaitik Zornotzak beretar lez artzen dauan euskal jakintsu oneri bere agerpen erriko eta bizia eskintzea.

**YON ONATIBIA.**— Oiartzuarrak gogoan dute urte batzuk dirala, ezbearrez, betiko galdu zuten Yon'en adiskidetasun bizia. Baiña bere oroitza iraunkor biurtu nai dute. Origaitik Ekainillean eskiñiko diote erri guziaren ize-  
nez, Yon'ek merezi zuen omenaldia.

Poztu eta zoriondu egiten du EUSKERAZAINTZA onelako gizonak bere lankide izateak eta azken baten erri-euskeraren maitasuna ikusten da eskintza orreitan.

Aintza biziei eta pakea illari.